



uk

51. zenbakia / 2003 azaroak 2

udagoi eneko



babesleak:



laguntzailea:



Getxo
Antzokian

azaroak 7
ostirala
22:00etan

AHOZKO INPROBISAZIOAREN BERTSOUND SYSTEM JAIALDIA

- Igor Elortza eta Jon Maia bertsolariak
- Kurando Shoji eta African Simba (Reagge Toaster estiloa)
- Selektah Sound System (Toaster euskalduna)

sarrera: 6 €

«Epaile asko erosezinak dira: dirua emanda ere, ez dago zuzenak izan daitezen lortzerik» Bertold Brecht

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Justuria Berangon. Luis Jauregiatzko.
6. PLAZA. Euskal kulturgintzako beharginak. Leihatilla, Josu Esnaola. Photoshop, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Portu Zaharra.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Kanposantuak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Anjel Lertxundi. Esti Ezkerra.
30. ERREPORTAJEA. Kutsadura Artean? Unai Brea.

KULTURA ETA AISIA

32. FOTOGRAFIA. Gonzalo M. Azumendiren argazkiak.
36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Getxoko zinema eskaintza.
37. MUSIKA. Ekin taldea. Diskoen erreseinak.
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkeraren zutabea eta irakurzaletasuna umeengan.
39. KOMUNIKAZIOA. SMS mezuak euskaraz.
40. NATURA. Indumetal enpresa. Katagoria.
41. ELKARRIZKETA. Ana Rosa Tercero, dantza irakaslea.
42. OSASUNA. Alkohola eta hilekoa.
43. JANTZI. 2003 Udazken-negua. Jon Urresti.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Arkaitz Gomezi elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
46. AKABUKO PUNTE. Tomas Abarrategigaz berbetan. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO


48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Algortako Sagardotegian.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Elexaldeko futbol taldea, 1953. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Hasier Etxeberria. Eunat Serrano.



26 Anjel Lertxundi

Berbetan

Saiakera, nobelagintza, haur eta gazte literatura, gidoigintza... Denetarik jorratu du idazle handi honek. Beragaz egon da Esti Ezkerra.




54 Hasier Etxeberria




12 Rocio Velasco



24 Albuma: kanposantuak



32 Gonzalo M. Azumendiren argazkiak



46 Tomas Abarrategi



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Eunat Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETAK: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarrí, Oskar Fernández, Josu Etxeola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Diaz, Gonzalo Ibarnegaratz, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Mixelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Oneta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



TOPAGUNEA



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berboto Euskaraz elkarteen laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Aspertuta

Gauza bera hainbestetan esan eta esan, litekeena da zuek eta gu aspertzea. Baina, zoritxarez, esatea beste irtenbiderik ez daukagu, eta beste irtenbiderik ez daukagu, hain zuzen ere, aspertuta gaudelako. Aspertuta euskara eta euskalgintzaren aurkako erasoak gero eta ohikoagoak izateaz; aspertuta gure herriko kulturari kolpe berri bat eman ostean telebistan agertzen diren batzuei “terrorismoaren kontrako borrokan aurrerapasua da hau” esaten entzuteaz; aspertuta urtero, edo sei hilabetero, Donostian inoiz egin den manifestaziorik handiena egin ostean, hemen ezer ez aldatzeaz.

Urriaren 15ean euskalgintzako hainbat kideren atxiloketaren albisteak, larria izanagatik ere, ez gintuen ia batere harritu. Holan jarraituz gero, asperdura eragingo digute (edo eragiten digute dagoeneko?) era honetako ekintzek; errepikaren poderioz, izenaren aurretik “euskal” goitizena daroan edozeren kontrako erasoak ekaitzak edo auto istripuak bezain ohikoak irudituko zaizkigu azkenik: kaltegarriak baina “normalak”, eta batez ere, saihestezinak. Baina ez litzateke hala izan behar. Ez ginateke sekula aspertu behar egoera jasanezin honen konponbidea bilatzeaz.


Euskararen alde gaudenon artean aspaldi geratu da argi eraso oldeari eman beharreko erantzuna Donostiako kaleetan ehunka mila lagun elkartzea baino zeezer gehiago dela. Ekin diezaigun ba. Aspertuta gaudelako, suspertu gaitezen. Bada garaia.

UK-ko lantaldea


gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> berria



Igartezina / Justuri edo tximistak sekulako indarra askatzen du oso denbora laburrean. Eta gainera, ezin da aurrez jakin non joko duen. Tximista, gutxien espero den momentu eta lekuan jausten den tximista apetatsua, naturaren borearean adierazlerik beldurgarriena da, hain da-eta zoriaren araberakoa. Horregatik meritu handiagoa du behinola Berangoko elizaren inguruan jo zuen honen erretatuak. Ez da oso irudi berria (ohartu zaitzte artean exerik ez zegoda “Milla” delako horretan), baina daukan edertasunagatik argitaratzea merezi duela uste dugu. / Argazkia: Luis Jauregialtzo

Leihatila

> Josu Esnaola

Esan eta izan (II)

Esan askotan esaten da justizia denontzat berdina dela, baina orain dela gutxi hedabide guztietan ager-tu da Madril inguruan neska bat bahitu, bortxatu, autoarekin gainerik pasa hiltzeko asmoz, bizirik jarraitzen zuela ikusirik gasolinaz busti eta su emanda hiltzeagatik fiskaltzak lau urteko zigorra eskatzen duela lau adin gutxikorentzat. Euskal Herriko gazte batek kutxazain bat erretzen badu hamar urte pasa beharko ditu giltzapean.

Esan, gazteentzako giltzapeko zentro horiek ber-tan dauden gazteak hezteko direla esaten dute, baina Enrike de Castro Madrileko apaizak adierazi zuenez zentro horiek kartzela hutsak dira, eta bertan giza eskubideak egunero urratzen dira, torturatu egiten da, eta hori gutxi balitz drogatu ere egiten ei dituzte lasai egon daitezen, bai presoak eta baita kartzelariak ere. Horretarako estatuak gazte bakoitzeko 2 milioi, lehengo dirutan, ordaintzen die hileko.

Esan, zera esan dute, Larrarte, Sors eta gainont-zekoen atxilotetak ez direla euskal kulturaren eta euskararen kontrakoak izan, hiltzaileen, terroristen eta herria hau txirotzen dutenen kontrakoak baizik. Izan, ez dago esan beharrik zer izan diren.

Esan, ondotoxo dakigu zer esango duten politi-koek, Batasuna legez kanpo utzi zutenean esanda-koak ere hor daude. Izan, hauteskundeak izan ziren eta badirudi erabateko demokrazian garela, oraingo-an ere apararren ostean batzuk kartzelan izango dira eta beharbada beste enpresa batzuk ez dira izango.

Esan, esango dut bertso bakoitzean gogoan izango dudala Galder, izan, hala izan bedi. 4

photoshop > Ereagako erraldoia



Argazkiak & manipulazioa: Asier Mentxaka

Iritzia

Azken boladan euskalgintza jasaten ari den erasoen gainean, adierazpen hau helarazi digute zeregin horretan diharduten lagunek.

Gezur zuriak

Gogor salatu nahi dugu euskal munduari, beste behin, egin dioten eraso lotsagarria, eta horrekin batera gure haserrea adierazi nahi dugu, gure kultura eta eskubideak, gorrotoa lege eginda hain modu narras eta baldarrean urratzen dituztenen aurrean, Espainiako gobernuaren obsesio bihurtu baita aspaldian, legea hankapean hartu eta epaileak bere gogora erabiliz, euskal kutsua duen ororen aurka jardutea.

Nazkatuta gaude Espainiako legeen aurrean inolako babesik gabe gaudelako, epaileek arbitrariedade gordinenaz jokatzen baitute euskaldun kutsua duen edozerekin. Azken aldian gogor jotzen ari dira euskal kultur enpresen kontra, eta ez dugu uste kasualitatea denik.

EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi eta atxiloketa negargarri haiek egin zituztenean, ondo zekiten gezurretan ari zirela, eta, areago, ondo zekiten mundu guztiak zekiela hura gezurretako muntaia zela.

Baina gaur egun merke dago gezurra Espainiako epaitegietan, eta are merkeago ustezko delituengatik euskal usaina darion edonor atxilotzea eta Guardia Zibilen eskuetan jartzea.

Urte askoan, nekez eta izerdiz, eraikiz joan garen egiturak eta enpresak birrindu nahi dizkigute, gezur zurien aitzakian. Horregatik, jendeari dei egiten diogu datozen egunotan egitekotan diren mobilizazioetan parte hartzera. 4

Euskal kulturgintzako langileak

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntzak.

985 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO IRUDIA



Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO PORTU ZAHARRA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Ordezko hortz-hagin ahaztuak aurkitu izan dituzte Metroan

begizorrotz > metroan galdutako gauzak

Gure jakingura asegaizak Metroko Galdutako Gauzen Bulegora eroan gaitu oraingoan. Esan digutenez, Metroa leku egokia ei da gauzak galtzeko, iaz 5.629 batu zituzten-eta bertan (egunero 15, batez beste!). Gehienbat aterkiak, diru-zorroak, karpetak, eskularruak eta giltzak galtzen dira, baina badira gauza bitxiagoak. Metroan inoiz batu dituztenen artean, ordezko hortz-haginak, bizikleta bat, erosketa egiteko gurdi handi bat, istripuen ostean lepoa babesteko ipintzen diren iduneko handi horietako bat eta bost milioi pezetako txeke bat aipa daitezke. Inoren bururik ez da aurkitu oraindik, baina egon. ^m



Gaur egun Leioa eta Getxo, Erromon banatzen duen kalea

gauza > zartagina



Hainbat jaki frijitzeko balio duen tresnaren izena latineko "sartaginis" hitzetik dator. Sasoi bateko

baserriguneetan burdinezkoak ziren, eta hiru hanka zituzten sukalde askotan zegoen laratzaren gainean ipintzeko; gaur egunekoak, ordea, itsaskorak ez diren materialakaz eginak daude, eta batzuk bitrozeramikan bakarrik erabili daitezke. Zartaginak arretaz zaindu behar dira: ez da komeni metalezko tresnak erabiltzea frijitzen dagoena nahasteko, ezta jakiak su handiegiagaz berotzea ere. Gainera, garbitzeko ez dira erabili behar burdin harizko espartzuak: ontzi-garbigailu leunakaz garbitzen dira, eta barrualdea, berriz, belaki bategaz. Zartaginaren antza daukaten beste tresna batzuk ere badira, helduleku bi dituen “paila” izenekoa esaterako; hortik dator “paella” hitzaren jatorria. ^m

datua > Superman ete? Ez, hegazkina da!



Hegazkin bat aireratzen Loiu

Uribekostarron buruen gainetik zenbat hegazkin igarotzen diren jakin gura izan dugu, baina ezin. Loiuako aireportuan egunero zenbat hegaldaldi dagoen baino ezin izan digute esan, Uribe Kostatik igarotzen diren ala ez zehaztu barik. Zelangura ere, eta zuek kontuak egin ditzazuen, horra datua: doazenak eta datozenak batuta, egunean 120 operazio izaten dira Loiuako aireportu ezin modernoagoan. Eta ez dute elkarren kontra talkarik egiten! ^m

Hegalaldi zuzenak Loiuako aireportutik

- **Estatu barrukoak:** A Coruña, Bartzelona, Las Palmas, Lanzarote, Madril, Palma, Santiago, Sevilla, Tenerife, Valentzia, Vigo.
- **Nazioartekoak:** Brusela, Düsseldorf, Frankfurt, Hannover, Lisboa, Londres, Milan, Oporto eta Paris.

kale izendegia > Jesus Loroño



Jesus Loroño

50. hamarkadako euskal txirrindularirik ospetsuenak Sopelan dauka kale bat. Jesus Loroño Arteaga Larrabetzun jaio zen 1926an, eta duela bost urte zendu zen. Indar eta izaera handiko txirrindularia, 19 urte gaz hasi zen profesional moduan. Mendiak igotzen oso trebea zen, eta horrela, Frantziako Tour-ean Mendiko Saria irabazi zuen 1953an. Lau urte geroago lehen postua lortu zuen Espainiako itzulian. Horiek biak izan ziren Loroñok txirringaren gainean lortu zituen garaipenik sonatuenak. 1962an erretiratu zen, baina zaletuek oraindik gogoratzen dute Bahamontes-ekin izaten zuen lehia. 1992az geroztik, Bilboko Txirrindulari Elkarteak “Jesus Loroño Nazioarteko Zikloturista Klasikoa” antolatzen du, haren omenez.

KURKUDI
LIBURUDENDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda

350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Fadura, kirolaren hiria

Faduran kirol hiria egiteko asmoa, antzinekoa izan arren, ez zen joan berri den mendeko 70eko hamarkada arte gauzatu; Getxoko Udal Kiroldegiaren iraganaren, orainaren eta geroaren berri dakargu oraingoan

la laurogei urte igaro dira Faduran kokatuta egongo zen kirol hiri baten lehen zirriborroa egin zenetik. Ordutik hona gauza asko jazo dira, besteak beste Udal Kiroldegia eraikitzea eta egonkortzea: gaur egun jende eta talde mordoak darabiltza Fadurako zerbitzuak. Guzmán Aranaga zinegotziagaz egin dugu berba Udal Kiroldegiaren eguneroko jardunaz eta arazoez. Arazoak, egon, badaude eta.

Guzmán Aranaga, Kultura, Kirol eta Hezkuntza zinegotzia den heinean, Fadura Udal Kiroldegiaren erantzule zuzena da. Berak eman dizkigu Gobela ibaiaren ondo-ko kirol hiriaren gaineko argibideak, historia apur bat eta guzti: “Badirudi padura horren patua aspalditik zegoela enabakita, 1926an egin zen-eta hor estadio bat eraikitze-ko lehen zirriborroa”. Haren ostean, zirriborro gehiago egin ziren, 1928an eta 1929-an, eta ondoren 1946an, baina ez ziren gauzatu.

Azkenik, 1971n inauguratu zen Fadura Udal Kiroldegia. Lau urte geroago, hainbat eraikin gehitu zitzaizkion (pilotalekua, igerilekuak...). Ondoren, eta erritmo apalagoan noski, zerbitzu gehiago sortu dira, eta oraindik badira burutu gabeko lanak.

Azterapenak hainbat lanetan “Kanpoaldean egongo den igerileku olimpikoaren estalkiaren lanak amaitzen dabiltza”, diosku Aranagak, “eta apirila edo maiatzeko guztiz eginda egongo diren itxaropena



Fadurako pilotalekuko irudi bat; batzuren ustez, lanak luzeegi irauten ari dira

daukagu”. Lan ugari eman du igerileku olimpikoak, eta hasierako asmoekiko atzerapen handi samarra dago, baina badirudi gauzak ondo bideratuta daudela orain.

Bestelako kontua dira pilotalekuaren lanak. Hainbat iturritatik dakigunez, lar

«Pilotalekuko lanak amaitzea da Fadurak orain dauzkan erronketako bat»

luzatzen doaz, hainbat arazo egon zirelako. Antza, estalki zaharra ia osorik hondatu da, eta instalazio elektrikoa oso-osorik egin behar izan da berriro. Pilotalekuko lanak amaitzea da Fadurak gaur egun dituen erronketako bat, baina ez bakarra. Guzmán Aranagaren esanetan, “beti dago egitekoren

bat: atletismo zelaia berritzea, futbol zelai gehiago egin...”. Gaur egun, herritar soilek ez ezik kirol elkarte ugari erabiltzen dute Fadura Udal Kiroldegia, Udaletxeagaz sinatutako arauak jarraituta. “Aparteko gauzarik ere ez”, dio Aranagak, “lekua eta gainerakoen entrenamendu orduak errespetatzea, hori baino ez diegu eskatzen”.

FADURAKO DATUAK

- 2.300 erabiltzaile inguru egunero.
- 23.200 abonatu. Horietatik, 22.100 Getxokoak dira, eta 1.100 beste herrietakoak, batez ere Berango, Sopela eta Leioakoak.
- Orduetgia: astelehenetik barikura, 8:00etatik 22:00etara.

Ume hiperaktiboak

Bizkaiko elkarteak Getxon du sorlekua



Idoia Loroño presidente daukan elkarteak Gorbeia Mendia kalean biltzen da

1999an sortu zen arretarako gabezia daukaten Bizkaiko ume hiperaktiboen elkarte (gaztelaniaz AHIDA siglakaz ezagutzen da). Orientabidea eta informazioa eskaintzen ditu familiek eta ikastetxeek gaitz hori daukaten umeak zelan tratatu behar dituzten jakin dezaten: “Gure seme-alabak ez dira ‘lurrikara’ bat; jokatzeko moduan jokatzeko dute hiperaktibitatea daukatelako”, diosku Algortan bizi den Idoia Loroñok, elkartearen presidentea.

Ume hiperaktiboak ez dira geldirik egoten, ez dute amaitzen hasten dutena, zerbaitetan arreta ipintzea asko kostatzen zaie, eta ipinita ere berehala galtzen dute, pentsatu aurretik jokatzeko dute, oldartsuak dira, eta beharrak antolatzeke zailtasunak dituzte. “Gainera, ume hauek au-

toestimu baxua daukate, eta batzuek depresioak jota amaitzen dute”. Loroñok azaldu digunez, gaitza garbi atzeman daiteke 5 eta 8 urte bitarteko adinean, “edo lehenago ere”, eta ez da sendatzen denborak aurrera egin ahala: “Arindu edo leundu egiten da, euren gabeziak menderatzen laguntzen bazaie”. Gela bakoitzean ume hiperaktibo bat dagoela uste da, “hots, osasun-arazo hau biztanleriaren %4k dauka”, argitu digu Idoia Loroñok.

Irabazasmorik gabeko elkarte honek 160 bazkide dauzka Bizkaian gaur egun, eta urtean 36 euro ordaintzen dute kuota gisa. Getxoko Udalak utzitako areto batean biltzen dira astelehenero, 17:30etik 19:30era. m

Harremanetarako: 94 431 57 83

PLAZA BERRIA ERAIKIKO DUTE MARTIKOENA KALEAN

Martikoena kaleko 9. eta 11. zenbakietan dauden eraikin bi husteko prozedura ipini du abian Getxoko Udalak, inguru horietan plaza bat eraikitzeko; bertan lurpeko aparkalekuak egitea ere aztertuko dute agintariek. Aipatutako eraikinak husteko prozesua eta plaza berria eraikitzeke lanak aurrera eramateko eperik ez dago oraindik. Bestalde, Neguriko Gernika plazako parkea konpondu egingo dute; izan ere, umeentzako jolasgunearen egoerak auzotarren kezak piztu zituen, oso hondatuta ei zegoelako. Abendurako amaituta egongo diren atontze-lanek 40.000 euroko aurrekontua daukate.

Martikoena kalean eraitsiko diren eraikinak



IA 500.000 EURO ALDAPA AUZOA URBANIZATZEKO

Udal gobernu getxoztarrak 489.000 eurotik gora erabiliko ditu Algortako Aldapa auzoko Fadurazo, Zubilleta eta Aldapa kaleak urbanizatzeko. Lanen helburuak mugitzeko zailtasunak daukaten pertsonentzako igarobideak hobetzea eta ibilgailuen abiadura murrizaraztea dira, Iñaki Zarraoa alkateak azaldu duenez. Proiektuari esker, espaloiak zabalago egingo dira, batez ere izkinetan; gainera, oinezkoentzako sei zebra-bide egingo dira, bai eta euri-isurbideak hobetu eta egungo aparkalekuak antolatu ere. Obrek sei hilabeteko epea daukate; beraz, datorren urteko udarako amaituta egon beharko dute.

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Sahararen eguna

hilaren 15ean Algortan

Atfal elkarteak eta Getxoko Udalak antolatuta, Sahararen Aldeko Eguna egingo da hilaren 15ean, Algortako Gel-tokiko plazan. Jaialdiak goiz osoa iraungo du, eta aurreko aldietan ohi-koak izan direnez gain, egintza berriak eskainiko ditu aurtten.

Lehen aldiz, Atfalek Saharatik bertatik ekarritako *jaima* paratuko da Sahararen Aldeko Egunean. Ez da izango, halere, Getxon paratzen den lehenengo aldia, Saninazioetan ere ipini zuten eta. Jaimaren barruan hainbat lantegi eta denborapasa izango da gainera: *jena* lantegia, iltze-kanelagaz lepokoak egitekoa, te dastaketa... Gainera, bertoko umeek eskutitzak idatzi ahal izango dizkete Saharakoei; antolatzaileek esan digutenez, hangoek eskutitzi orantzuteko ahalegina egingo da ondoren.

Giroa alaitzeko, Oihulari Klown taldeak *El rincón de Sherezade* ikuskizuna eskainiko du. Musika, ipuinak eta umorea basamortuaren espiritua gurera ekartzeko, ordu batzuetarako sikera. m

Te dastaketa egin ahal izango da



Rocio Velasco > Protokoloan aditua

“Edozein ekitaldik protokoloa behar du irudia zabaltzeko”



Argazkian, Rocio Velasco

39 urte daroaz Getxon bizitzen, baina hegazkina da bere bigarren etxea. Ez zaio axola, munduan barrena bidaiatzea gustuko du-eta; Moskutik ailegatu berri da Felipe Printzeagaz egon ostean. Rocio Velascok lau hizkuntza dakizki, eta denak beharrezkoak ditu lanerako: protokolo-burua da 1992az geroztik.

—Noizdanik daukazu protokoloarekiko zaletasuna?

—Txikitatik gustatu izan zaizkit txukuntasuna, eta usadioak eta ohiturak errespetatzea. Baina batez ere, gaur egun irudi ona zabaltzeak daukan garrantziaz jabetu nintzenean. Protokoloa tresna ederra da hori lortzeko.

—1998an Euskadiko Protokolo eta Zeremonial Eskola sortu zenuen. Zer irakasten duzue?

—Euskadin ez zegoen horrelako zentrorik; ni Madrilera, Oviedora edo Galiziaira joan behar izan nuen protokolo ikastera. Gure eskolan ikastaroak antolatzen ditugu: alde batetik, laburrak diren hastapeneko ikastaroak; bestetik, ekitaldi handiak antolatzeko ikastaro luzeagoak; eta azkenik, enpresen neurrirakoak. Horiek asko eskatzen dizkigute.

—Batzuentzat protokolo kontuak aspal-diko garaiakaz loturik daude, eta bereziki

aristokraziagaz eta erregetzagaz. Zer derit-zozu ikuspegi horri?

—Egia da. Pentsa, protokoloa Kleopatrararen garaian hasi zen, Egipton. Betidanik, goi mailako erakundeek irudi bat emon eta zabaldu behar izan dute gizartean, baina orain —irudiaren aroan bizi garen honetan— hori ere denon kontua da. Nire beharra batere zorrotzak ez diren eta ondo pentsatuta dauden arau ofizialak enpresa mundura eta mundu zibilera egokitzea da. Edozein ekitaldik protokoloa behar du irudia komunikabideetan zabaltzeko.

—Zer ez duzu jasaten eta zer ikusten duzu begi onez beharrean zaudenean?

—Gurean gaizkien ikusita dagoena gizabide txarra da, puntualtasun eza gehienbat; bestetik, egoten jakitea, ekitaldi baten arauak eta lehenetasunak onartzen jakitea.

«Anfitroia-aren eta gonbidatuaren azalean ipintzen naiz dena ondo atera dadin»

—Zer ekitaldi mota antolatzen duzu?

—Niri asko gustatzen zait Estatuko protokoloa, hau da, ofiziala eta politikoa. Hori Euskadin erronka da, legedirik ez daukagulako; beraz, askatasun gehiagoz jarduten duzu. Hasieran protokolo oso ofiziala antolatzen nuen, eta orain inaugurazioak, aurkezpenak, jaiak...

—Gauza asko eduki beharko dira kontuan, ezta?

—Gonbidapenaren diseinua, prentsa oharra, agertokia, azafatak, kanapearen tamaina, soinua, musika egokia...

—Eta non dago gakoa dena gura duzun bezala atera dadin?

—Nire kasuan behintzat, anfitroia-aren eta gonbidatuaren azalean ipintzean; gaitasun hori eta baliabide egokiak edukiz gero, erraza da. Horrela jokatura gauzak ondo ateratzen zaizkit. m

Emakumeak taula gainera

Emakume Bideak antzerki-zikloak bosgarren denboraldia hasi du **urrian**



Bonbolinak taldearen lan bat

“**Orain bost urte**, Getxoko Antzerki Eskolan konturatu egin ginen hainbat emakume elkartek antzezlan onak zeuzkatela, eta horiek modu egokian erakustea bururatu zitzaigun”. Hala gogoratzen du Javier Liñerak, Getxoko Antzerki eskolako irakasle eta ekimenaren koordinatzaileak, urritik ekainera Bizkaia osoan zehar ibiltzen den Emakume Bideak antzerki-zikloaren sorrera.

Urriaren 3an abiatu zen bosgarren denboraldi honetarako inoiz baino talde gehiago batu dira. “Orain arte zazpi-zortzi taldegaz ibili gara, eta aurtten

hamaika dira, denak Bizkaikoak”. Antzezlan guztien ezaugarria da aktoreak emakumezkoak eta amateurrak direla. Izan ere, talde guztiak emakume elkarteak, edo “*behintzat haietatik sortutakoak*” dira. Gainerako parte hartzaileak (zuzendariak, teknikariak...) gizon zein emakumezkoak izan daitezke.

Antzezlanen gaiak ez du derrigorrez emakumeakaz harremanik eduki behar. “*Lehen gehiago gertatzen zen hala*”, azaldu du Liñerak, “*baina orain edozein gairen gaineko lanak antzezten dituzte; emakumeen ikuspegitik kontatua, jakina*”. m

GEHI HITZARMENAREN BEGIRALE IKASTAROAK

Getxoko Udalak, Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta herriko 23 gazte elkartek sinatutako Getxo Euskalduntzeko Hitzarmenak (GEHI) begirale ikastaroak antolatu ditu aisialdi taldeetan jardun gura dutenentzat. Parte hartzeko baldintzak 18 urtetik gorakoa izatea eta Getxoko aisialdi talde bateko kidea izatea dira. Dagoeneko hasita dago ikastaroa, baina oraindik garaiz zabiltzate bertan hasteko, gura izanez gero; horretarako, 94 491 43 57 telefonora deitu behar da (Teresa).

UDAZKENEKO KONTZERTUAK, AZAROAREN 14TIK

Getxoko Kultur Etxeak antolatutako XVIII. Udazkeneko Kontzertuak azaroaren 14tik 21era egingo dira aurtten. Lehenbiziko emanaldia Andrés Isasi Musika Eskolan izango da, Amaia Arregi sopranoaren eta Gayane Sharluyan pianojolearen eskutik, eta arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Gainerako emanaldiak Salbatzailearen elizan egingo dira, azaroaren 18, 19, 20 eta 21ean. Udazkeneko Kontzertuek Getxora ekartzen dute mundu osoko musika klasikoa; aurtten, esaterako, Txinatar Ganbera Orkestra Gaztea izango da bertan. Horrez gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Luis Damaso tenorea eta Maite Arruabarrena mezzosopranoa arituko dira, batzuk aipatzearen.

ADOLFO MARTINEN IRUDIAK SATISTEGIN

Algortako Satistegi taberna Adolfo Martín marrazkilarik getxoztarraren lanen erakuslekua izango da datozen hilabeteotan. Martínek bere-berezkua duen estiloa, “*estilo apur bat onirikoa beharbada*”, islatzen dute Satistegin ikusgai dauden marrazkiak, “*azken hiru urteotan-edo egindakoak*”, egilearen esanetan. Marrazkilariak dioenez, “*inoiz polemikoak suertatzen dira nire lanak, errespetu gutxi agertzen dudalakoa edo, baina ez dut nahita egiten*”. Hain zuzen, erakusketa hau iragartzen duen kartelak piztutako erreakzioez dio hori. “*Gauzak datozkidan bezala marrazten ditut, nahiko modu ez-konszientean*”, dio Martínek. Erakusketan dauden irudietakoren bat eskuratu gura duenak badu horretarako aukerarik, salgai daude eta.



Adolfo Martinen lan bat



**GALEA
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31

Eskulangintza azoka azaroaren 8an eta 9an

Datozen azaroaren 8an eta 9an, Kandelazubieta kiroldegiak 24. Eskulangintza Azoka hartuko du. Leioako Udaletxeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duten azoka honetan 53 erakusle izango dira guztira; horietatik, 45 artisauak dira, eta gainerako zortziek gastronomia-produktuak eskainiko dituzte. 53 partehartzaileetatik, 31 Euskal Herritik datoz, eta gainerakoak Estatu espainiarreko leku batzuetatik. Eskaria eginda zeukaten beste 40 erakusle kanpoan geratu dira, leku falta dela eta.

Erosketa bakoitzagaz batera, saltzaileek Artisautza Kalitate Ziurtagiria emango diote erosleari. Iaz 10.000 bisitari hartu zituen azokak, eta aurten, antolatzaileen esanetan, kopuru hori handitzeko itxaropena dago. ^m

lazko azoka iragartzen zuen kartela



Amaia, Xabier, Larraitx eta Itziar, etxeko sukaldean

Ikasle hiria Unibertsitateko ehunka ikaslek Leioa aukeratzen du bizileku, Bilboren aurretik

Gipuzkoa eta Nafarroatik datoz gehienbat, gazteak dira, eta, askotan konturatzen ez garen arren, gure artean bizi dira. Leioako campuseko ikasleak dira, eurotako asko lehen ikasturtea autobusean sartuta eman dutenak, eta bizimodu horren nekeak bultzatuta, bertan pisu bat alokatu dutenak. Talde handietan, ahal dela.

Amaia, Xabier, Larraitx eta Itziar ikasle horietako batzuk dira. Diotenez, ikusi zuten lehen pisua hartu zuten: *“Ez da denbora gehiagi eman behar bilatzen; pisu bat ondo badago, hurrene hartu behar da, bestela kendu egiten dizute”*. 600 euro ordaintzen dute alokeraga-

tik, prezio ona dioskuenez.. *“Badaude merkeagoak, baina sekulako ‘zuloak’ dira”*. Ikasleen premiaz baliatzen dira batzuk... Esan digutenez, ekainean hasi behar da pisu bila, irailera arte itxaronez gero berandu izan daiteke eta.

Askok Bilboko giro eta parranda dute nahiago. Leioa, aldiz, *“nahiko ‘hilda’ dago”*, gure berbakideen esanetan. Baina horren aurrean hurbiltasuna du abantaila Leioak, eta ondorioz, makina bat lagunek aukeratzen du bizileku. Zorritzarez, ez dago horiek zenbatuko dituen erroldarik. Eman daitekeen kopururik zehatzena, goizetan autobus geltokian ikusten denaren arabera, *“ehunka”* da. Ez da gutxi. ^m

pertsonaia > Clara Ondiz Ondizko Clara



Clara Ondiz etxeko atarian jesarrita topa dezakegu ia egunero

Ondiz dauka abizena, Ondiz jaioterrria eta Ondiz bizilekua, bere etxeko horman dagoen erroretuak argi eta garbi adierazten duenez. Clara Ondiz 88 urteko leioaztarra da, edo hobe ondiztarra esan behar genuke. Ia egunero etxeko atarian jesarrita, paisaiaren zati bihurtu da bera ere. Hantxe topatu genuen, eta hantxe eduki beragaz berbaldu goxoa.

“Ni hamen jaio nintzen, eta aita eta ama bere hamen jaio ziren”, diosku. Auzoa ez da hainbeste aldatu harrezkeroztik;

«Besteren fusilak garbitzea izan ezik, danetarik egin dut»

garai bateko bizimodu lasaia gogora ekartzen digun isiltasuna da nagusi bertan. Leioa, herria bera, aldiz, beste kontu bat da: *“Jente asko etorri da hona bizitzen, arraza duztitakok ganera. Ondo dao hori”*. Hala eta guzti ere, Clara ez da oso sarritan bajatzen herrira; gurago du goiko giroa, gorabehera handirik gabeko egunak. Jaietan ere, *“mezatara baino ez naz jotzen, ostantzen etxera sartuten naz”*.

Bizimodua aurrea ateratzeko hamaika beharretan ibilia da Clara. Sukaldaria, baserritarra, arrantzalea... Berak ederto azaltzen duenez, *“besten fusilek garbitu ixen ezik, danatariko beharrak egin dodaz bizitza honetan”*. Urte askotarako, Clara.

IBILALDIKO DENDA ZABALIK DAGO HONEZKERO

Betiko ikastolak 2004ko Ibilaldiaren material salmentarako gun e bi paratu ditu: bata ikastolan bertan, eta bestea Luis Bilbao Libano kaleko 32. zenbakian. Lehenbizikoa martitzen eta barikuetan egongo da irekita, 16:00etatik 17:00etara, eta bigarrena, berriz, eguen eta barikuetan, 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 11:00etatik 14:00etara. Bestetik, Betikok jakinarazi duenez, ikasle ohien bilera egingo da datorren azaroaren 5ean (eguztzena), 19:00etan, ikastolako egoitzan, Ibilaldirako lan taldea eratzeke helburuz.

ETXETKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -
Lacofris, s.L. SERVITEC
¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETEKOKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITUARI
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

etorri eta ikusi!!

LORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BEROGAILU ETA ITUR -

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu

THE BEST
UNE-UNEKO ERROTULOAK

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Kutur jardunaldiak Lutxanan

Azaroaren 3tik 16ra bitartean hainbat kultura ekitaldi burutuko dira Lutxanan Keli taldearen eskutik. Aurtengoa “Kultur azaroak” egitarauaren II. edizioa izango da

Egitarauko ekitaldi guztiak doan izango dira, Keli taldearen asmoa urtean zehar egiten den lana kaleratzea eta ezagutaraztea da eta. Saio gehienak Lutxanako eskolatan antolatuko diren arren, hainbat erakusketa, eta beste zenbait ekintza ere, Lutxanako kaleetan egingo dira.

Keli taldeak artea Lutxanako kaleetara ekarri nahi du, eta modu iraunkorrean txertatu bertan. Horrela, Keli taldeak azken urteotan egin duen apainketa etikoari segida emango dio azaroan zehar: argazkia, mosaikoa, eskulturak, e. a.

Antzerkiaren zaleek azaroaren 3an hasi eta bederatzi eguneko ikastaro baten bidez antzerkian lehenengo urratsak emateko aukera izango dute Lutxanan. Ikastaro amaieran antzezlan txiki bat eskaintzea da antolatzaileen asmoa.

Kulturak ez ezik elkartasunak eta ingurumenak bere lekutxoia izango dute hila-betean zehar, arlo ezberdinak lantzeko aukeraren bitartez: antzerkia, perkusio musika, yoga, artisautza, jazza, arrauna, Sahara, Bilboko itsasadarra, bizikleta martxa, Musika kontzertuak, txotxongilo-



Argazkin, Felix, taldeko bultzatzailea

MOSAIKOA PARATU DUTE KELI TALDEKOEK

Keli taldeak Lutxanako kaleetan artea eta auzokideek beraiek egindako lanak era iraunkorrean txertatu nahi dituzte auzoan. Aso horren adibide bat argazkiko mosaikoa duzue. Eskola aurrean urbanizatu barik zegoen lursailean mosaiko bat egitea pentsatu zuten Keliak. Pentsatu, ekin eta baita burutu ere. Lutxanako irudia aldatzea izan zuten helburu eta neurri handi batean lortu egin dute.



UK

Behar beharrezkoak
ditugu zuen

dirulaguntzak

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

Xabier Mendia > telebista gizona

“Oso atsegin dut nire lana”



Xabier Mendia erandioztarra

Xabier Mendia 26 urteko gazteak Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen, eta Bilbo, Tolosa eta Erandio artean bizi da. Uda honetan “No hagan olas” irratsaioan bere ahotsa entzuteko aukera izan dugu, baina mutil alai hau “Betizu” programako “Mikrotxokoaren” aurkezlea zelako da ezaguna gaztetxoaren artean. Saio horretan

umeentzako eskulanak eta magia egiten zituen, janari plater ikusgarriekin tartekatuta. Estualdiak izan ditu, ikusle gazteek bera kalean topatu eta magia amarruren bat egiteko eskatu diotenean, baina bera hauts magikoak etxean utzi dituela esanez eta irribarra oparitzuz irteten da egoeratik. Kasu gehienetan, dena den, umeen gura-

soek ezagutzen dute lehenago, berak esan zigun bezala.

Oporraldi laburraren ostean, “Políticamente incorrecto” programaren taldean aurkitzen dugu lanean. Oraingo honetan kamara atzean aritzen da nahiz eta kamara aurreko lana gehiago duen gustoko. Kamara eta ikuslearen artean sortzen den konplizitatea gustatzen zaio, eta bat-bateko grabaketan dagoen tentsioak lana interresgarriago bihurtzen duela adierazi zigun.

«Betizu programako Mikrotxokoa-ren aurkezlea zelako da ezaguna Xabier Mendia gaztetxoaren artean»

Telebista egunero aldaketak jasaten dituen komunikabidea da, eta ondorioz, norberak dituen proposamenak egun batetik bestera desagertu daitezkeela kontatu zigun. Aurreratu zigunez, oraingoz ez dauka beste proiekturik, baina inguru honetan gauzak ziur izan arte ezin dela hitz egin gehitu zuen. Xabierrek benetan atsegin du bere lana, eta beraz, prest dago edozein motako telesaila egiteko.

Bukatzeko, kontatu zigun bere lana eta bizitza bi gauza ezberdin zirela, eta asteburua bere familia eta lagunentzat zirela, gainera ezaguna izateak ez ziola eragin eguneroko bizitzan, batez ere parra-dan irteteko orduan. m

cianoplan s.a.

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Herriaren gaineko
Triviala
prestatzen dabilta

Gabonak gero eta hurbilago ditugu-nez, Olentzerori zer eskatuko diogun pentsatzen hasi beharko dugu. Sopelako Udalak proposamen bat egiten digu: Informazio, Komunikazio eta Turismo saila *Trivial* mahai-joko ezagunaren bertsio berezia egiten dabil; izan ere, bost ataletan banatuta egongo diren gal-derek (kirolak, historia, kultura, Sopela Gaur eta geografia) herriagaz zerikusia izango dute. *Trivial* horren helburua, jakina, jokatzten duten bitartean sope-loztarrek euren herria hobeto ezagutze-ko aukera edukitzea da; azken batean, lagastuz ikastea.

Sopela hizpide izango duen mahai-jokoa prestatzen dabilta orain; horrega-tik, gura duten herritarrek euren ideiak, datuak eta galderak emon ditzakete proiektu berezi hori osatzen eta sortzen laguntzeko.

Ez da gurean tankera horretako *Tri-vial* bat egiten den lehen aldia; orain dela urtebete Leioaren gainean 700 gal-dera zituen jokoa plazaratu zen euskarri informatikoan herri horretan. ^m

«**Sopeloztarrek
ekarpenak egin ditzakete
mahai-jokoa osatzeko**»

Ikasleentzako **jarduerak**
Sopelako ikastetxeek **Udalak bultzatutako
ekimenetan** parte hartu ahal izango dute



Ander Deuna ikastolako informatika gela

Sopelako Udalak bost proposamen aur-keztu dizkie herriko ikastetxeei, helburutzat ikasleek herria hobeto ezagutzea, internet eta teknologia berriak erabiltzea eta kirola egitea dituztela. Jardueretako bati *Ikasleak Sarean* deritzo, eta udal webgunean sartzeko aukera ematen die, bertan dagoen informazio guz-tia erabiltzeko; proposatutakoa betetzen badute eta onartzen bada, ikasturtearen amaieran 500 euroko saria irabaziko lukete.

Ikasleria *TIC 2003* izeneko lehiaketan partaide izatea ere ikusmiran dute udal agin-tariak; dagoeneko badira zenbait sopeloztar Power Point edo html euskarrietan eginda-

ko lanak bidaltzen dabiltzanak, beti herria-gaz zerikusia daukatenak. Lehiaketa horrek hirugarren aldia bete du aurten, eta irabazle-en izenak hileror jakinarazten dituzte.

Kirola eskolan sustatzeko asmoagaz, ber-riz, kiroldegiak erabiltzeko erraztasunak emango dizkiete ikasleei, baina eskola-or-duak zainduta; igeriketa ikastaroak ere anto-latzea pentsatu dute Zipiriñeko eta Ander Deuna ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. mailan daudenentzat. Bestalde, herrian ba-rrena bisitaldi gidatuak egiteko aukera izan-go dute, Sopelako txokorik esanguratsuenak ikusteko. ^m

Pilar Serrano > Itzartu Emakume Elkarteko presidentea

Berdintasunaren bila

Euren hitzaldietara gizonezkoak ere joan daitezke



Itzartu elkarteko zuzendaritza-batzordeko andrak; Pilar Serrano eskuman dago

Pilar Serranok sei urte daroaz Itzartu elkartearen presidente. Sopelan dagoen emakume elkarte bakar honek 1.200 bazkide dauzka, eta 1991ko martxoan sortu zen andrazkoen alde behar egite-ko, *“eta orain berdintasunaren alde ere”*. Serranok dioskunez, denbora honetan emakumea aldatu egin da, eta bilakaera eduki du elkarteak ere: *“Orain kontuan hartzen gaituzte, baina oraindik ez dugu berdintasuna lortu esparru guztietan. Asko borrokatu beharko dugula uste dut hori lortzeko”*. Ildo horretatik, iaz hitzal-diak ireki egin zituzten gizonezkoentzat ere, *“elkarte bezala berdintasuna bilatzen eta eskaintzen dugulako”*.

Zuzendaritza-batzordeko kideak Elei-zalde kalean dagoen egoitzan biltzen di-

ra eguenero, 18:30etik aurrera; han an-tolatzen dituzte hamaika ekitaldi. Pilar Serranok hiru ataletan banatu dizkigu: alde batetik, 23 ikastaro iraunkor daude, ikasturtean zehar eskaintzen direnak (aerobic, igeriketa, eskulanak, antzerkia, grafologia eta abar); bestetik, irteera kul-turalak egiten dituzte, *“azaroan, esatera-ko, Logroño bisitatuko dugu”*. Eta azke-nik, hitzaldiak egiten dira: *“Ikasturte ho-netan astean behin bat antolatu gura du-gu”*. Itzartu elkartearen presidenteak Ema-kumearen Aste Kulturala izeneko jar-duera ere nabarmendu digu: *“Martxoan izaten da, datorren urtean 8tik 14ra bi-tartean, eta egun bakoitzak ekitaldi bat edukiko du”*. ^m

Harremanetarako: 94 676 55 95

HONDARTZETAKO DUTXAK NEGUAN ERE

Zenbait elkartek, kirol-federaziok eta taldek Sopelako hiru hondartzetan (Bariñatxen, Arrietaran eta Atxabiribilen) dauden dutxak urte osoan erabil ahal izatea eskatu dute, surfzale, bodyboard-zale eta arrantzaleen izenean, ez bakarrik bainu-denboraldian, ohikoa denez. Udalak aintzat hartu du, eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dio *“zentzuzko eskaera hori”* jaramon egin diezaiola. Aditzero emon dutenez, dutxen mantentze-lanaren ardura udalerriak hartuko luke udatik kanpo; ekainetik irailera bitartean, berriz, Diputazioaren kontu egongo litzateke, orain arte gertatu izan den moduan.

LALIAK
Taberna
Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

BARBIRULAU 5 BOST
erakusketak
antzerkia
dj.ak
ALGORTA

GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

EGINKOR
INMOBILIARIA
Basagoiti, 55 behea
T: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

zure **publizitatea** hemen
zure **publizitatea** hemen
zure **publizitatea** hemen
deitu: 94 491 13 37

SPL BAR ESPUELA
ITURRIBIDE
BILBAO
• PINTXO 6020-6020AK
• OSTEGU KULTURALAK
• ASTEBURUTAN MARTXOLA
• TELEFONOA: 944150565
• ITXURALDATURIK HATOR.
ELKARTOKIA ETA GIRO DATORRA

Basurto
Algorta S.L.
altzariak
Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Gazteak aintzat hartu

Aurkeztu den planak proposamen berriak dakartza **asteburua, gazteak eta alkohola** batzen dituen koktelari aurre egiteko

Orain dela aste batzuk, Berangoko Udaletxeak eta Eusko Jauriaritzak plan bat aurkeztu zuten *botilatzar* delakoaren arazoari aurre egiteko. Hainbat beritasun ditu egitasmoak (gazteen iritzia kontuan hartzea, errepresiorik ez erabiltzea...), eta horien gainen jardun dugu Rakel Delgado Uribe Kostako Mankomunitateko Drogomenpekotasun teknikariagaz.

Berangon botilatzarren arazoa konpontzeko planaren lehen pausuak ematen hasi dira dagoeneko. Hain zuzen, egoeraren azterketan dabilta planaren arduradunak, eta harremanean jarri dira horretarako zer ikusia daukaten alde guztiakaz.

Eusko Jauriaritzako teknikariak burutuko dute plana, baina Uribe Kostako Mankomunitateak ere parte hartu du egitasmoaren hasierako faseetan. Bertako Drogomenpekotasun teknikaria den Rakel Delgadok dioskunez, *“Berangoko irakasleakaz, guraso elkarrekin eta oro har elkarrekin guztiak hasi dira harremanak; hori izango da guztien iritzia –gazteena ere bai– ezagutzeko bideetako bat”*.

Hala ere, pentsatzekoa da arazo gehien sortzen duten gazteak inongo elkartetan ez



Herriko hainbat bazter mota honetako zikinkeriaz gainezka agertzen dira zapatu eta domeketan

dabiltzanak izango direla hain zuzen ere. Bestalde, planaren aurkezpenean esan zenez, Berangon edaten dabilta gazte gehienak Berangotik kanpokoak izaten dira. Horiengana guztiengana ailegatzeko, bi-tartekariak egongo dira: *“Bitartekariak gazteak izango dira”*, azaldu digu Delgadok, *“beste adin beretsukoak”*. Euren lana edaten dabilta artean jarrera positiboagoak sortzea izango da.

Azken batean, helburua guztion eskubi-deak uztartzea da. *“Ez dugu esango gazteek edan ezin dezaketarik”*, dio Delgadok, *“are gutxiago alkohola goraiatzeko duen gizarte honetan, baina bai beste modu batean edan beharko dutela, besteei trabarik egin barik”*. Hainbat zalantza piztu dituen plan hau ait-zindaria da EAEn, baina *“beste leku batzuetan ezarri izan da (Xixonen esaterako), eta arrakasta eduki du”*. m

GURE ATXINEKON BOZA



Erretratuan, Berangoko euskerako liburuan agertuko direzen euskaldun batzuk

Orain dela hilabete batzuk esan genizuen, Iñaki Gaminde ikerlari bilbotarrak Berangoko euskararen gaineko liburua argitaratuko du. Jakin izan dugunez, urtarilean gertatuko da hori. Joan den urriaren 18an, hain zuzen, liburua inprimategira bialdu aurretiko azken egin beharrekoa egin zuten Berangoko Udaletxearen aurrean: liburua osatzeko Gamindek elkarrizketa egin dienen erretratua. Arrazoi desberdinengatik, batzuk falta izan ziren, baina hala ere talde ederra elkartu zen, irudian ikus daitekeenez. Liburuagaz batera, CD bat kaleratuko da, Berangon geratzen diren azken euskaldun zaharren testigantzak zuzen-zuzenaren entzuteko modua izan dezagun. Hala ere, eta zorionez, erretratuan ageri direnak baino gehiago dira gure arbasoen berbakera gordetzen dutenak herrian.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
20º ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

www.berria.info



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra


Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



BASTARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



Taberna Berrn
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



krimea
Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA



jateko
• urdaitegia
• frutadenda
• elikagaiak
Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[herriak]

URDULIZ ELKARTE HIPIKOA Zaldi gainean ibiltzen ikasten



Pierre Beugeard 2000n hasi zen beharrean Urduliz Elkarte Hipikoa

Bitxia da, baina Urduliz Elkarte Hipikoa sortu zenetik (orain dela 13 urte), Frantziako hiru irakaslek jardun dute bertan; oraingoak Pierre Beugeard dauka izena, Nantes hirian jaio zen, eta hiru urte eta erdi daroaz Sopelan bizitzen eta Urdulizen beharrean. Profesionala da 1983az geroztik.

Gaur egun, Urduliz Elkarte Hipikoa arraza ezberdinetako 70 bat zaldi daude: *“Gehienak lehiazteko dina, baina baditugu beste batzuk aisialdirako eta paseoan ibiltzeko”*; zaldi gainean ibiltzen ikasi gura dutenentzat zaldiketa eskola ere badago, *“hor 60 ikasle inguru dabiltza”*. Pierrek

dioskunez, bazkide gehienek zaldiak dauzkate: *“Horiek egunero etorri behar dute hona zalditegia garbitzeko, eta animaliarene gainean ibiltzeko, ariketa egin dezan”*; gainontzekoak, astean behin, birritan edo hirutan joaten dira.

Astelehenetan izan ezik, Goieta Au-zoan dagoen elkarte hipiko hau egunero dago zabalik, *“eta ia urte osoan zehar”*. Salneurri desberdinak daude, baina adibidez, zaldiz behin bakarrik ibiltzeak 18 euro balio du, *“gustatu bazaizu eta sarriago etorri gura baduzu, merkeagoa da bonu bat erostea”*. m

Harremanetarako: 94 676 58 34 - 44 66

URIBE KOSTA Kargu aldaketak Mankomunitatean

Uribe Kostako Mankomunitatea 1992-an sortu zen, hainbat zerbitzu modu egokiago eta merkeagoan kudeatzeko helburuagaz. Gehienbat, gizarte-ongizateagaz harremana daukaten zerbitzuez arduratzen da Mankomunitatea: gizarte-zerbitzuak, drogomenpekotasuna, ingurumena, animalien bilketa...

Mankomunitateko arduradun nagusiak politikariak dira, eta edozein udaletxetan legez, lantzean behin agintari aldaketak egoten dira. Joan den irailetik, hain zuzen, Juan Olea Urdulizko alkatea da presidentea, azken zortzi urteotan kargua eduki duen Jose María Ezpeleta Barrikako alkatearen ordez. m

Urriak 31 - Azaroak 16

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

ERANDIO

- **Mi abuelita me desnuda.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 8, zapatua. 22:00. *Vuela bonita corporation* taldearen eskutik.
- **Expansiones.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 13, eguna. 20:15. *Txusma teatro* taldearen eskutik.
- **Globalización.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 15, zapatua. 22:00. *Hortzmuga* taldearen eskutik.
- **El jardín.** Bekoa ikastetxean. Azaroak 15, zapatua. 19:30. *Aztiak* taldearen eskutik.

GETXO

- **Gente guapa, gente importante.** Getxo Antzokian. Azaroak 8, zapatua. 19:00. *Luna Ilena* taldearen eskutik.

ERAKUSKETAK

ERANDIO

- **Kemenak, el impulso a la superación.** Josu Murueta Kultur Etxean. Azaroaren 3tik 16ra.


GETXO

- **Marcelino Floresen olioak.** Algortako erakustaretoan. Azaroaren 4tik 15era.
- **Getxotik mundura.** Erromoko erakustaretoan. Azaroak 1etik 15era.

LEHIAKETAK

LEIOA

- **X. bideo lehiaketa.** Gaia askea izango da, eta lanak argitaratu gabeak eta beste lehiaketatan saritu gabeak izan beharko dira. VHS euskarrian emango dira, eta gutxienez 4 minutu eta gehienez 11 iraun beharko dute. Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behea. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com
- **XVII. argazki lehiaketa.** Gaia askea izango da, eta lanak berriak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketatan saritu gabeak izan beharko dira. Koloretan edo zurbeltzean aurkeztu ahal izango dira, 30x40 zentimetroko euskarri gogorrean (2 milimetroko lodierako). Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67,



► **IKUSKIZUNAK**
Bertso Sound System, Getxo Antzokian

Datorren azaroaren 7an (barikua), Bertso Sound System ikuskizuna izango da gozagarri Algortako Getxo Antzokian. Herri eta kultura desberdinak elkartzan ditu Bertso Sound Systemek; alde batetik, Sound Systema, Jamaikan sortu zen inprobisazio mota bat, disc jockey batek ipinitako musikaren eritmopean erimadun esaldiak botatzear datzana; bestetik, Euskal Herriko bertsolaritza, Jon Maia eta Igor Elortzaren eskutik etorriko dena. Proposamen polita, zinez, bariku gauerako.

Non: Getxo Antzokian • **Noiz:** Azaroak 7, barikua • **Ordua:** 22:00etan

behea. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com

MUSIKA

BARRIKA

- **Canal Blues.** *Golfo Norte* tabernan. Azaroak 1, zapatua. 23:00.

ERANDIO

- **Half Chicken Project+Jam Session.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 7, barikua. 24:00.
- **Radical Blues.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 8, zapatua. 24:00.
- **Dúo Eftrobicorus.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 14, barikua. 24:00.
- **Soul Fingers.** Lutxanako eskoletan. Azaroak 15, zapatua. 24:00.

GETXO

- **Amaia Arregi eta Gayane Sharluyan.** Areetako Andrés Isasi Udal Musika Eskolan. Azaroak 14, barikua. 19:00. XVIII. Udazkeneko

Kontzertuen barruan.

ZINEMA

GETXO

- **Gangs of New York.** Getxo Antzokian, azaroaren 5ean (eguztarena), eta Areetako Gran Cineman, azaroaren 6an (eguna). Biak 20:00etan.
- **Las hermanas de la magdalena.** Getxo Antzokian, azaroaren 12an (eguztarena), eta Areetako Gran Cineman, azaroaren 13an (eguna).

Biak 20:00etan.

- **Alianza mortal (film laburra)+ La última noche (film luzea).** Getxo Antzokian. Azaroak 14, barikua. 22:00.

PLENTZIA

- **La vida mancha.** Goñi Portalen. Urriak 31, barikua. 22:00.
- **El viaje de Carol.** Goñi Portalen. Azaroak 7, barikua. 22:00.
- **Las hermanas de la magdalena.** Goñi Portalen. Azaroak 14, barikua. 22:00.

BESTERIK

ERANDIO

- **IV. hiribarruko txirrindulazko martxa, “Bizirik errespetat gaitzazu”.** Erandioko Udaletxetik abiatuta. Azaroak 9, domeka. 10:30.

GETXO

- **Egizul-ko Berbalagunen aurkezpena.** Egizul-ren Berbalagun ekime-nean aurren parte hartuko dutenak Aldai kulturenean elkartzeko dira (Itsasgane Etxean, Karitate kalea 1). Urriak 31, barikua. 19:00.
- **Edorta Jimenezen hitzaldia.** Irakurzaleen Txokoaren barruan, Edorta Jimenezek *Kilkerren Hotsak* bere azken liburuz berba egingo du. Itsasgane Etxean (Karitate kalea, 1). Azaroak 5, eguztarena. 19:30.
- **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Azaroak 14, barikua. 19:00.

SOPELA

- **Herri kirol erakustaldia Ibilaldia**ren alde. Ibon Irazola eta Jon Lapazarana, Bizkaiko trontza txapeldunak; Martina Iturrioz eta Ruth, Bizkaiko eta Euskadiko trontza txapeldunak; Itziar Ansoleaga eta Susana López trontzalaririk; Berangoko emakumezkoen sokatira taldea. Ander Deuna ikastolak antolatuta. Udaletxeko plazan. Azaroak 2, domeka. 11:30.

hamaika bide

zenbat gara elkarte

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Arrigorri itsas
ostatu
4 Algara konpartsa
5 Zaparrada Gaztegunea
6 Oigetan Umearena
7 Elkartaren zerbitzu,
ikastaro eta tailerrak
8 Bakaikuko elkea
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
Gara argitaletxea



[albuma]



Zain dauzkagu

Kanposantu eta lore garaiak dira hauek. Domusantu Egunak milaka lagun eroaten ditu hildakoei bisita egiten; bisita laburra, pare bat minutukoa, edo pare bat ordukoa, eta etxera. Guri behintzat ez zaigu azken bisitaren txanda ailegatu, etxera itzuliko ez garen bisita hori. Eskualdeko kanposantuetara jo dugu egunotan, gure zain dauden eraikin horien irudi bila. Dagozala zain presa barik, geuk ere ez daukagu eta.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Saiakera, nobelagintza, haur eta gazte literatura, gidoigintza... Erraztasun handiz egiten du jauzi arlo batetik bestera. Haietako bati uko egin behar izanez gero, argi dauka zein izango litzatekeen: lanbide duen gidoigintza utziko luke, narratibaren mesedetan. Ibilbide oparoa egin du idazle oriotarrak *Hunik arrats artean* estreinako ipuin liburua kale-ratu zuenetik hona. Azken nobelarekin, Beterriko Liburua saria jaso du.

Anjel Lertxundi

Literaturaren konpromisoa

Testua: **Esti Ezkerra** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—*Zorion perfektua, izenburu aproposa bizi ditugun garaietarako.*

—Nietzschek esaten zuen perfektzioa faxista dela, giza kondiziotik kanpo dagoen zerbait delako. Izenburuak badu bere ironia. Neurri batean, denok bilatu nahi dugu zoriona, baina ez dugu beti aurkitzen. Jarrera burges batetik begiratura, inguruan duzun errealitateari bizkarra emanda bizitzea izan daiteke zorion perfektua. Hain zuzen, liburuko protagonistak egoera tragiko batekin topo egiten duenean zorion perfektu hori desagertu egiten zaio. Orduan hasten da arazoaz pentsatzen, gauzak beste modu batera ikusten, emakume izaten. Eta, ironikoki, zorion perfektua planteamendu horretan ere aurki daiteke. Niretzat, behintzat, zerbait izatekotan horixe da: errealitateari aurre egitea eta bustitzea, inplikatzeari aurre egitea eta bustitzea, inplikatzeari aurre egitea eta bustitzea, inplikatzeari aurre egitea eta bustitzea. Inplikaziorik gabeko zorionik ez dago, eta zorion perfekturik are gutxiago.

—**Hain zuzen, horregatik egiten da dei-garria zure azken nobela: errealitatea azaltzeko darabilen estilo zuzenagatik.**

—Zarautzen bertan aspaldi gertaturiko kontu batean oinarritu nintzen istorioa idazteko. Neska bat atentatu baten lekuko izan zen, eta zeharo inpaktatuta geratu zen. Etxera ailegatzerakoan, amak errieta egin zion berandu ailegatzeagatik, eta gaur egun, orduko gertaera hartatik zera gogoratzen du: hildakoa lurrera erori zenekoa, eta etxeko eszena. Neska hura gertutik ezagutu nuen, eta kontatzen zue-

“Beldurra diot alde planoak bakarrik agertzen dizkidan prentsari, politikariari zein literaturari”

naren arteko kontrastea, tragediaren eta egunerokotasunaren arteko kontrastea, deigarria egin zitzaidan. Geu ere, urtetan, halaxe bizi izan gara: tragediaren eta egunerokotasunaren artean. Eta berdin du egoera hori indarkeria politikoaren zein bestelako bidegabekeriaren ondorio den; zeinen ondo asimilatzen dugun eguneroa besteen sufrimenduaren aurrean. Gazteak ginenean, heriotza gauza serioa

zen, baina hitz egiten genuen hari buruz (ez ikusi). Orain, berriz, telebistak egunero presente jarri digu heriotza, eta egunero bizkarra ematen diogu. Erabat tribializatu egin da tragedia. Horri aurre egiten hastea litzateke zoriontasuna bilatzeko modua.

—**Nolabait, gatazkaren irudi erromantikoa ezagutzen genuen, baina beste aldea ezagutzea falta zitzaigun.**

—Literaturan zein errealitatean, heroi bat dagoen tokian sarraski bat dago. Kontua da heroiari buruz biktimez baino gehiago hitz egiten dela. Idazlearen zereginetako bat alderdi ezkutu eta ilun horiek azaltzea da, eta batez ere, alde planoetatik ihes egitea. Beldurra diot alde planoak bakarrik agertzen dizkidan prentsari, politikariari zein literaturari. Errealitateak dituen alde bihurriak erakusten ez dituen literaturak

ez dit ezertarako balio. Kontu itsusien gainean mantu bat zabaltzen du, eta noizbait haiek adierazten baditu ere, komeni zaiona agertuko du. Ez dut uste idazle zein artista baten funtzioa hori denik. Bestelako kontuengatik hasten da bat idazten. Batzuetan sakrifizio handiarekin, eta arriskua hartuz. Besteek gaizki hartze-ari beldurra diogu denok, baina idazleak aurre egin behar dio horri. Lan artistikoa zein gaiak ukitzerakoan arriskatzen ez den idazlearengan ez dut sinesten.

—Best-sellerraren fenomenoak zabaldutik, literatura geroz eta deshumanizatuagoa dela iruditzen zait.

—Nik neuk bi eratako literatura landu dut. *Argizariaren egunak*-ekoa literatura teknikoagoa zen, baina horrelako testuetan ere, gizakiaz ez ahazten ahalegindu naiz. Gurean bezalako gizarte txikietan, elkarren arteko markajea handiagoa da. Betidanik, Euskal Herrian koadrila gizarte egitura garrantzitsua izan da, eta metafora polita izan daiteke markajearena azaltzeko. Koadrilak badu halako arautegi

ezkutua, hitzez finkatu ez dena baina funtzionatu egiten duena. Horrek talde barruan traiziorik ez egotea ziurtatzen du. Beraz, pertsonalki baino gehiago gregarismo horren arabera funtzionatzen dugu. Halaxe gertatzen da politikan, eta norberaren autonomia promozionatu beharrean, taldearen funtzionamendua bultzatzen da. Nik pertsona librean gizartea nahi dut. Talde gisa aske izateko modu bakarra

“Talde gisa aske izateko modu bakarra dago, eta pertsonaren askatasuna bilatuz hasten da hori”

dago, eta pertsonaren askatasuna bilatuz hasten da hori.

—**Edonon aurki daitezke taldeari egin-dako aipamenak. Literaturan, erreferentzia moduan belaunaldikako antolaketa erabiltzen dute. Zu zeu haietako baten kide bihurtu zaituzte.**

—Gurea belaunaldia baino gehiago argitaletxeen inguruan garaturiko kontua izan da. Gerra Zibila gertatu izan ez balitz,

Lizardirekin eta Lauaxetarekin beste horrenbeste gertatuko zen. Zergatik? Literatura haiekin hasi zelako arnasa hartzen. Behin susperturik, idazle edo poeta horiek hartzen dute izena, eta jarraian datorren belaunaldia, nolabait, itzalean geratzen da. Baina horrek ez du esan nahi idazle horiek besteak baino hobeak direnik; ez, momentu hori bizitzea tokatu zaielako da. Gurean ere antzeko zerbait gertatu da.

Batasun linguistikoak literaturari ekarri zion onura eta suspertze sozio-politiko bizi zuen lehen belaunaldia ginen. Lehenak literaturara dedikatzen. Une honetan ez ginatke honetaz hitz egiten egongo geure literatura azken mende osoan normalizatu izan balitz, geure aurretik belaunaldi bat egon izan balitz, eta haren aurretik beste bat, eta abar. Modu horretan, gurea belaunaldi bat



gehiago izango litzateke, hobea edo txarragoa.

—**Normalizaziorako bidean, aurrera beharrean atzeraka ari garela diote batzuek.**—Normalizazio linguistikorako hartzen diren bideetan espartanoak izan behar dugu. Hizkuntzarekin arazo izugarria daukagu. Erreglamentistegiak bihurtu gara, eta hizkuntzari arnasa eman behar

“Nire anbiziorik handiena inguruan ditudanen artean zoriontasun handiena banatzen ahalegintzea da”

zaio. Erreglamentismo horri beldur handia diot, batez ere irakaskuntzan nagusitzen denean. Gramatika eta forma zuzenak irakastea, hizkuntza bera biziaraztea baino garrantzitsuagoa denean. Zeren hizkuntza ez da biziarazten gramatika asko jakinda. Gerta daiteke pertsona batek gramatikaz asko jakitea, baina hizkuntza ez sentitzea. Filologo gehiegi dauzkagu. Badira ikuspegi aberatsa dutenak, baina normalean, alde filologikoari bakarrik erreparatzen diote. Filologia hizkuntza azaltzeko modua da, baina hizkuntza beti gailenduko zaio. Filologiak sekula ez ditu deskubrituko hizkuntzaren misterioak. Agian

“Norbaiti euskara zaila egiten zaiola entzutea zerbait gaizki egiten ari garen seinale da”

literatura hurbilduko da horretara, baina filologia ez. —**Harrigarria da, behintzat, zeinen azkar zaharkitzen diren euskarazko argitalpenak.**—Berria-n idazten dudan zutaberako nota batzuk hartuta nituen, hain zuzen, gai horretaz. *Hunik arrats artean* lehendabizi idatzi nuen liburua begiratzen dudanean, gauzak zenbat aldatu diren konturatzen naiz. Funtsean, estiloa bera da, baina arauak, modan zeuden erabilerak,

beste batzuk ziren. Bizitza osoan mareatuta ibili naiz kontu horiekin, eta ni horrela egon banaiz, nire ardura ez duen eta horretara dedikatu ez den pertsona arruntak zer esan beharko du! Norbaiti euskara zaila egiten zaiola entzutea zerbait gaizki egiten ari garen seinale da. Alfabetatu ez denari gertatzea normala da, baina jende gazteari, ikastolatik pasa denari? Zerbait

gertatzen da hor.

—*Hunik arrats artean aipatu duzula, nola gogoratzen duzu idatzi zenuen lehen liburua?*

—Gauza kurioso baterako ez balitz, gaur egun hango ipuinetako asko ez nituzke berreskuratuko. Baina bai berreskuratuko nukeela orduko espiritua. Hain zuzen, helburu gisa daukat liburu hura idazterakoan neukan askatasuna eta poza oraingo liburuekin berriro sentitzea. 1979. urte aldera, Erroman idatzi nuen *Hunik arrats artean*, oso lagunarte onean. Parisko 68ko maiatzaren espiritua urte bete geroago iritsi zen Italiara, eta ikasleen ordez, langi-

leek protagonizatu zuten. Sekulako manifestaldiak egon ziren, eta haietako batean, milioi bat pertsona baino gehiagok parte hartu genuen. Alde horretatik, liluraz eta inbidiaz begiratu diot beti *Hunik arrats artean*-eko sasoiari. Gainera, lehendabiziko obra nuen, baina batez ere hori, orduko espiritu askea faltan sumatzen dut. Aurreritzirik gabe gauzak esateko eta jarduteko ahalmen hura.

—**Generoak aukeratzeko orduan, zeri begiratzen diozu?**

—Daukadan trebetasun bakarrari begiratzen diot, hau da, narratibari. Poesian arrotz sentitzen naiz, ez naiz identifikatzen. Gero, nire prosa oso poetikoa dela esaten didate, iruditegiagatik eta. Hala izango da, ez dakit.

—**Gizarteak ondo bereizita dauzka poetak eta idazleak.**

—Bai, arrazoi duzu. Kontua da narrazioan askozaz lasaiago sentitzen naizela, eta bitxia da, azken urte hauetan gehienbat saiakera eta poesia irakurtzen baitut. Narratiba ondo ezagutzen dut, eta garai-kidea erabat jarraitzen dut, baina ez nobela guztiak irakurrita. Alegia, lehendabiziko kapituluak irakurtzen ditut; nobela gutxi irakurtzen ditut osorik. Nolabait, elementu tekniko guztiak nondik nora doazen ikusten dudanean (50 orri nahikoak dira horretarako), utzi egiten dut. Istorioak benetan harrapatu behar nau liburu osoa irakurtzeko. *Deformación profesional* delakoaren ondorio izango da, ziur aski. Aldiz, saioarekin eta poesiarekin ez zait hori gertatzen.

—**Irakurle exigentea zarela esan daiteke.**

—Ez dakit. Pixka bat anarkoa agian. Arkatza eskuan dudala irakurtzen dut, eta akats guztiak markatzen ditut. Erein argitaletxean urte dezente egin nituen zuzentzaile lanetan, eta ordutik ohitura hori daukat. Arkatzik ez badaukat ezeroso sentitzen naiz. Badakizu, maniak.

—**Erronkarik?**

—Une honetan lan batekin ari naiz, baina batere presarik gabe. Aspaldiko partez, oso lasai nago. Asko irakurtzen ari naiz, eta ahal beste hilabete horrela iraun nahiko nituzke. Lan serio bat hasi arte, behintzat.

—**Eta pertsona moduan?**

—Nire anbiziorik handiena inguruan ditudanen artean (familia, lagun zein adiskideak) zoriontasun handiena banatzen ahalegintzea da. Geroz eta argiago daukat munduan dugun funtzioa horixe dela. Zurea ondo ateratzea nahi baduzu, ingurukoak ere berdin tratatu behar ditu-

zu. Era berean, horrek esan nahi du inguratzen nauena ez dela nire lagunartea bakarrik; norberak baditu erantzukizun sozial batzuk eta nire artikuluen bidez haiei erantzuten saiatzen naiz. Bi helburrekin egin ere: pentsatzen dudana adieraztea, baina ahalik eta min gutxien eginez. Pixka bat horixe da herri honetan nire tokia.

—**Nolabait oreka bilatu, ezta?**

—Ez da erraza oreka bilatzea, baina ahalegindu behar gara. Askotan erretira zintezke, eta guztiaz ahaztu. Neurea egin, eta kito; baina horrek ez nau inora eramaten. —**Konpromisoak literatura hiltzen duela entzunda nago, baina John Bergerren iritziz idazleak, pertsona den heinean, ezin du bere egitekoa ahaztu.**

—Konpromisoak ez du literatura itotzen. Modu itxian eta unilateralean ulertutako konpromisoak itotzen du literatura. Nor-

malean, idazle konprometituaren rola horrela ulertu bada ere, hori ez da konpromisoa. Kausa batekin konprometitzen da, baina ez kausa literarioarekin. Konpromiso literarioa bestelakoa da.

—**Alabaina, urteetan bigarren joera nagusitu da.**

—Errusiako iraultzaren garaian hasi ziren literaturaren konpromisoari buruz hitz egiten, eta ondoren, existentzialismoaren sasoian, Sartrek-eta idazlearen konpromisoa aipatu zuten. Orduan, Alderdi Komunistak indar handia zeukan Frantziako idazleen artean. Bigarren Mundu Gerraren urteak ziren haiek, erresistentziarenak. Konpromisoa aipatu dugun moduan ulertzeko joera handia zeukaten. Baina, horretan ere, alde handiak zeuden idazleen artean. Hortxe dugu Albert Camusen adibidea, idazle konprometituen artean konprometituena, baina kontu guztiak,

ezerosoak izan arren, zalantzaren galbahetik pasatzen zituena. Justizia benetan non zegoen aurkitzen saiatu zen, alde ezkutuak agerian utziz, eta partidu baten kontsignetan erori gabe. Camusek kritika ugari jaso zituen bitartean, Sartre orduko Aita Santua izan zen. Baina, gaur egun, bigarren hori da kritikatzen dutena, esan zituenengatik baino gehiago esan ez zituenengatik. Azkenean, konpromisoa literaturarekin da; zure ofizioarekin eta diziplinarekin. Jakina, bakoitzari testuinguru sozio-politiko jakin baten barruan egokitzen zaio hori garatzea, eta beraz, testuinguru horrek kutsaturiko ekintza bihurtzen da literatura. Baina zenbat eta literatura hobea egin, orduan eta zerbitzu hobea egingo diozu idazten ari zaren hizkuntza horri zein gizarteari. Ikusiko da ala ez, baina hori gutxienekoa da. Idazleak, behintzat, horretan ari dela sentitu behar du. m



oinez 2003

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI



Ikastola berria eraikitzeko zure laguntza behar dugu

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630
Caja Rural de Navarra: 3008 0042 51 1203795925
Caja Navarra-Nafarroako Kutxa: 2054 0041 86 9134923815
Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130
Kutxa: 2101 0381 05 0011331584

Askotan salatu da Leioako Artea Merkataritza Parkea kutsatutako lurren gainean eraikita dagoela. Gaia oso aspaldikoa da, baina orain dela gutxi Lur Maitea elkarte ekologistak ipinitako salaketak gaurkotasuna eman dio atzera. Auzia epaitegietara doan bigarren aldia dugu, baina oraingo honetan gehiago dira salatutakoak, Karmelo Sainz de la Maza Leioako alkatea eta Eusko Jaurlaritzako goi-kargu batzuk tartean. UK-k batzuen eta besteen iritziak jaso ditu, oraindik zeresan ugari sortzeko dagoen gaiaz ondoko erreportajea osatzeko.

Arteako lurra, epaitegira

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Apirilaren 10ean, Lur Maitea elkarte ekologistak kerella kriminala ezarri zuen Getxoko 6. Instrukzio-Epaitegian, Artea Merkataritza Parkea eraikita dauden inguruak behar bezala deskutsatu ez izanagatik eta bertan parkea bera eraiki izanagatik. Ustez delitu ekologikoa egiteaz salatutakoen zerrenda luzea da: Karmelo Sainz de la Maza Leioako alkatea, herri horretako hainbat zinegotzi, Sarrientaldea enpresa (Artearen ugazaba), Esther Larrañaga, gaur Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburordea eta ustezko delitua egin zen garaian Ingurumen Sailburuordea zena, eta Javier Agirre, Hondakinen Kudeaketarako Zerbitzuko kidea. Lur Maiteak aipatutakoei leporatzen diena ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, ingurugiroa eta gizabanakoaren osasuna mehatxupean jartzea baizik.

Istorio honen hasiera 1974an dago. Lur Maitea elkarteak ezarritako kerellak gogora dakarrenez, urte hartan Leioako Udaletxeak eta artean bertako zinegotzia zen Venancio Aurrekoetxeak akordioa

lortu zuten Aurrekoetxearen lur eremu batzuk udal zabortegi moduan erabiltzeko. Zuazo izeneko inguruan zeuden lur haiek, gaur egun milaka bisitari hartzen dituen Artea datzan lekuan hain zuzen.

Zabortegiaren lehen urteetan, inguruko hainbat enpresak hondakin arriskutsu ugari eroan zituzten bertara, lindanoa besteak beste. Kontrolik eza zen nagusi, eta arazoak bata bestearen atzetik etorri ziren: kiratsa, intsektuak... Azkenik, 1992an Udaletxeak zabortegia ixtea erabaki zuen.

«Zuazoko zabortegiaren deskutsatzea ez zen ondo egin, Lur Maitea-ren ustez»

Handik laburrera, Sarrientaldea enpresak inguru hori aukeratu zuen Artea eraikitzeko. Enpresak ingurua deskutsatzeko konpromisoa hartu behar izan zuen, Udaletxeagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz izenpetutako akordio baten arabera; deskutsatze lanak 1995ean hasi ziren. Lur

Maitearen kerellak dioenez, ordea, lanak ez ziren modu egokian egin, eta kutsadurak oraindik dirau.

UK harremanean jarri da deskutsatze lan haietan parte hartu zuen (eta izena bertan agertzea gura izan ez duen) beharginetako bategaz. Esan digunak arrazoia ematen dio, zeozelan, elkarte ekologistari: *“Guk ondo egiten genuen geurea, baina nik beste batzuei entzuten nienez, lana ez zegoen ondo eginda. Gure ardura plastikozko poltsa erraldoi batez zabortegia estaltzea*

zen; inoiz, indusmakinek apurtu egiten zuten guk ipinitako plastikoa. Gainera, poltsaren inklinazioa ez ei zen egokia, han aipatzen zenez”.

Gaiak epaitegiatarako bidea hartu zuen 1997an. Orduan, Ekosa enpresa izan zen salatzailea, eta Sarrientaldea salatua.



Ingurune honetan dago zabortegi zaharra

Orduan ere kerella kriminala izan zen tartean, eta leporatutako delitua, ingurumenari erasoa. Auzi hura 1998an largetsi (bertan behera utzi) zen, eta horixe da hain zuzen orain salatutakoek erabili duten argudioetako bat. Hala egin zuen, esaterako, Karmelo Sainz de la Mazak berak, irailaren 30ean hainbat komunikabideren aurrean egindako adierazpenetan (uko egin dio UKgaz zuzenean berba egiteari).

“Interes komertzial hutsak”

Lur Maiteak, berriz, eman digu iritzia aurreko kerellaren largespenaz, Consuelo Elosua bozeroalearen ahotik: *“Orduko hartan, Ekosa zen salatzailea, eta Ekosa beste enpresa bat baino ez da. Hangoak interes komertzialak ziren, beste barik. Azkenean, Sarrientaldeak, auzia galduta zekala ikusita, 1.800 milioi pezetako eskaintza egin zion Ekosari gaiaz ahaztearen truke. Ez daukat esandako honen frogazuzenik, baina fidatzeko moduko zenbait iturritatik jakin ahal izan dut. Kontuak kontu, Ekosak bertan behera utzi zuen gaia,*

eta horregatik largetsi zen auzia”.

Orain, alde batekoek zein bestekoek elkarren kontrako gauzak dinoezan txostenak darabiltzate gora eta behera. Izan ere, Lur Maiteak kerella ezartzearen arrazoi nagusia Espainiar estatuak Europar Batasunaren (EB) irizpen bati jaramonik egin ez izana da. *“Aurtengo urtarrilaren 31koa da irizpen hori”*, diosku Consuelo Elosuak, *“eta beraren bitartez EBk hilabete biko epea eman zion ‘Espainiako erresuma’-ri Zuazoko zabortegiko kutsaduraren arazoa konpontzen hasteko. Denbora horretan, ‘Espainiako erresuma’-k ez zuen ezertxo ere egin”.*

Salatutakoek, berriz, ingurunea guztiz garbi dagoela ziurtatzen duten hainbat txosten tekniko mahaigaineratzen dituzte. Auzia zabalik dago, eta epaileak dei egin die dagoeneko salatutakoei, deklaratu dezaten. Lur Maiteak, baina, ez du itxaropen handirik agertzen: *“Justiziak, itsua ez eze, gor, mutu eta tetraplejikoa izateari uztea gura genuke, bai gai honekiko bai antzeko beste batzuekiko”.* ^m



Artearen ikuspegi bat


Sarrientaldearen erantzuna

Sarrientaldea enpresak ez dio UKri adierazpenik egin gura izan. Horren ordez, bost puntuko agiri bat bialdu eta oso-osorik argitaratzeko eskatu digute. Zoritxarrez, luzeegia da hemen sartzeko, eta lehen puntu biak sartzeko lekua baino ez dugu eduki. Edozelan, nahikoa adierazgarriak direla deritzogu:

1.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Azpisailak -hau da, ingurumenarekin zerikusia daukaten gaietan autoritate gorenak- gaiari dagozkion txosten teknikoak eta analisi ugariak oinarri dituela osatu dituen agiriei, ziurtatu egiten dute Artea Merkataritza Parkea eraikita dagoen lur eremua, zeinean aurretik (1974) zabortegia baitzegoen, deskutsatu egin zela aipatu Merkataritza Parkea eraiki aurretik.

2.- Lehenago aipatutako eta “Lur Maitea” izeneko elkarteak eragindako prozedura penalean ikertzen ari diren gertakari berak aurretik ere ikertu zituen Getxoko 4. Instrukzio-Epaitegiak (699/97 Aurretiazko Diligentziak), eta beronek, “Lur Maitea”-k ipinitako kerellan oinarritzen den Goardia Zibilaren txosten berbera ikertuz, ebatzi zuen, 1998ko abenduaren 14an, prozedura largestea (bertan behera uztea). Largespen hori 1999ko urriaren 27ko dataz Bizkaiko Auzitegi Probintzialak emandako auto baten bidez berretsi zen, auto horretan ziotelarik Toxikologia Institutu Nazionalak emandako txostenek ziurtatzen zutenez, ez dagoela arriskurik, ezta txikiena ere, Gobela ibaira isuritze toxikoak iristeko.

“Txosten eta analisisiek ziurtatu egiten dute Artea eraikita dagoen eremua deskutsatuta dagoela”



Marko Polok ikusitakoak

Datorren urtean Marko Polo bidalari ospetsua jaio zeneko 750. urteurrena ospatuko da. Berak ibilitako paraje guztiak zapaldu ditu gure eskualdeko argazkilaririk internacionalena den Gonzalo M. Azumendik. Gonzaloren lanek alde batetik, munduan den aniztasuna islatzen dute, eta bestetik, danok familia bereko kide egiten gaituen zera hori.


Argazkiak: **Gonzalo M. Azumendi**




SIRIA



NEPAL



PAKISTAN



MALAYSIA




JEMEN




34 UK

TURKIA



AFGHANISTAN



TIBET



INDIA



JORDANIA



KIRGIZISTAN



UZBEKISTAN

zineeskola

Oskar Fernández

Zinemaren hizkuntza eta literatura(II)

Zinemak hainbat eta hainbat eleberri ospetsu eta ezagun eraman du pantallara, baina orain ez dugu horretaz hitz egingo, zinemak eta literaturak dituzten antzekotasunez baizik. Ehunka urte daramatza gizakiak bere asmoak, iritziak, ametsak eta istorioak idazten, baina horixe bera filmen bidez egiten hasi zenetik ehun urte baino ez dira igaro. Hala eta guztiz ere, adierazpide hau sortu eta berehala, hogeigarren mendearen hasieran, zinegileek bide berri ugari asmatu zituzten irudien bidez kontatu ahal izateko idazleak hitzez kontatzen dituen istorioak. Ikus ditzagun bi adierazpide artistiko hauen artean dauden antzekotasun batzuk: Bi ekintza denbora berean gertatzen direnean, idazleak nahikoa du "bitartean" hitz soila erabiltzea bi gertaera desberdinak aldi bereko direla adierazteko. Demagun, sarri ikusi edo irakurri dugun bezala, protagonistaen maitalea arrisku bizian dagoela, eta hura salbatzeko, zaldi gainera jauzi egin eta ziztu bizian abiatzen dela gazte kementsua. Gauza bera irudien bidez adierazi ahal izateko, muntaketa erabili behar da. Muntaketa berezi hau paraleloa deitzen da. Oso asmakizun garrantzitsu eta oinarritzkoa izan zen zinemarako. Ikus dezagun beste adibide bat: idazle batek denbora luzea edo bi belaunaldi igaro direla adierazteko, egin behar duen gauza bakarra da aipatutako denbora adierazten duten hitzak erabili. Horixe bera irudien bidez adierazteko, ordea, beste bide bat asmatu behar izan zuten, garai batean sarri erabili zena: pantaila beltz uztea, hain zuzen ere. Era honetan, istorioan enbora tarte luzea igaro zela ematen zen aditzera. Zinemagileek, beraz, irudimenaren laguntzaz, oztopo guztiak gainditu eta adierazpide berria jende eta leku guztietara zabaltzea lortu zuten. 4

Argiak, kamera... Ekin!!!

Hastear daude Getxoko Zineklubaren eta Cinema Paradisoren denboraldi berriak

Azaroagaz batera Getxoko Zineklubak eta Cinema Paradisok maiatzaren azken astera arte luzatuko den denboraldi berri bati ekin ohi diote; aurten 28. eta 11. aldia beteko dute, hurrenez hurren. Martin Scorsese-ren *Gangs of New York* filmagaz hasiko du Zineklubak 2003-04 ikasturtea, hilaren 5ean hain zuzen. Guztira, 30 pelikula inguru ikusi ahal izango dira 2,60 euroren truke, eguaztenetan Getxo Antzokian eta eguenetan Areetako Gran Cineman; urtero legez, emonaldiak arrastiko 20:00etan hasiko dira, eta ondoren forumaren txanda ailegatuko da.

Horren inguruan, Zineklubaren arduradunetako bat (eta zutabekidea) den Oskar Fernandezek erronkarik nagusia zein den aitortu digu: *"Jendea solasaldian gera dadin lortzea, parte hartzeko eta ikusi duen filmaren inguruan iritzia emateko"*. Ildo beretik egin digu berba Enrike Gomezek ere. Cinema Paradisoren antolatzaileetako bat dugu, eta honokoa gaineratu du: *"Ikusle kopuruari eutsi gura diogu aurten, eta ahal bada, gehiago lortu. Beherakadatsua igarri dugu, merkataritza-gune handiakaz lehiatu behar dugu-eta"*. Izan ere, Cinema Paradisoren proiektzioak (jatorrizko bertsioan) eta forumak barikuetan izaten dira



Oskar Fernandez eta Enrique Gomez

gaueko 22:00etatik aurrera, Getxo Antzokian. Aurtongo denboraldia hilaren 14an hasiko dute Spike Lee-ren *La última noche* film luzearen eta *Alianza mortal* film laburraren emonaldiakaz; 28an, berriz, Brad Andersson-en *Sesión 9* botako dute. m

AZAROAN ZINEKLUBEAN

- **Gangs of New York**, 5ean eta 6an.
- **Las hermanas de la Magdalena**, 12an eta 13an.
- **Quiero ser como Beckham**, 19an eta 20an. Getxotik Mundura GKEak antolatuta.
- **Piano jolea**, 26an. Euskararen astearen barruan egingo den emanaldia.
- **El ladrón de orquídeas**, 27an.

Ez galdu > "Soñadores"



Bernardo Bertolucci

Film honen atzean Europako zine zuzendaririk hoberenetariko bat dago, Bernardo Bertolucci, hain zuzen ere. Gizon italiar honek hainbat eta hainbat film hunkigarri, interesgarri eta teknikaz bikainak oparitu dizkie gure begiei: "Azken tangoa Parisen", "Novecento", "Ilargia", "Azken enperadorea" eta "Zeru babeslea" besteak beste. Azken lan honetan kontatzen digun istorioa Parisen kokatzen da, 1968.eko maiatzean. Europako gazteriak unibertsitateetan eta kaleetan protesta mugimendu gogorra egin zuen bidegabekeriaren eta gizartearen itxurakeriaren aurka azaldu, eta beste mundu bat eraikitzeko. Azken ameslariak izan ziren haiek. Giro horren erdian, bi anai-arrebak amerikar gazte bat ezagutu dute Parisen, eta beren etxera joatera gonbidatu dute. Hirurak elkartu eta apartamentuan giltzaperatzen dira, haien sentimenduak eta erotismoa arakatzeko.

Erradiografia > Ekin



Argazkian, Ekin taldeko kideak

Nondik datorren izena: *"Zehazki ez dakigu. Aldatzea ere pentsatu genuen noizbait, baina dagoeneko bost urte daramatzagu izen horrekin"*. **Noiz hasi ziren:** Taldea orain dela bost urte sortu zen eta birritan aldatu dute abeslariz. Orain dagoen abeslariarekin ia urte bat bete dute. **Taldeko kideak:** Urtzi (abeslaria), Kepa (bateria), Jon (gitarra), Borja (baxua) eta Pablo (gitarra). **Gustukoa dute:** *"Eraginak baditugu, bai, baina gustuko dugu guztien artean nahasketa egitea; bakoitzak bere zatitxo bat jartzen du. Gainera guztioi ez zaigu musika bera gustatzen, bati Su Ta Gar gustatzen*

zaio eta beste bati Kop". **Eginiko diskoak:** Bost abestiko maketa grabatu dute, baina lagunen artean banatzeko egin zuten hala ere *"norbait nahi badu emango diogu kopia bat, noski!"*. **Besteak beste, jo dute:** Maidaganeko gaztetxean, Bilborock-en, Algortako eta Berangoko jaietan. Hilabete honetan Andoainan eta Hezetasunaren auzoko jaietan ere hantxe egongo dira. **Euskal musikaren egoe-ra:** *"Egoera latza da. Argi dago aurrera egitea nahiko zaila dela, gainera lehenengo urteetan ez daukazu ez anplifikadorerik ez ezer, beraz gehiago sufritzen da"*. m **615785651**

diskoak

Shine
Daniel Lanois
Anti



Daniel Lanois ekoizlearen esku trebea U2, Peter Gabriel edo Bob Dylan-en lanik onenetan antzeman daiteke. Honokoa, bakarlari moduan kaleratzen duen hirugarren diskoa dugu; salmenta handiak eduki ez arren, abesti hunkigarriez eta edertasun handiko soinu misteriotsuez bustita dago. Diskoan Emmylou Harris-ek eta Bono-k parte hartzen dute.

Silence is easy
Starsailor
EMI



Askok diote 2003ko diskorik onenaren aurrean gaudela. Ingalaterrako laukote honen lehenengo lanak *"Love is here"* milioi bat aletik gora saldu zituen hilabete gutxiren barruan. Baina bigarren honetan, Phil Spector mitikoa gordelekutik ateratzea lortu dute ekoizpen lanak egiteko; 23 urte eman ditu jeinu horrek estudio batean sartu barik.

Euria ari duela
Sagarroi
Metak



Bigarren disko honetan, Iñigo Muguruzaren hirukotea laukote bihurtu da. Soinu aldetik ere beste aldaketa egon da; izan ere, Asier Ituarte taldean sartu denean, modu naturalean egin dute rock gogorretik ska-rako bidaia. Sagarroik hasieran jende asko harrituta utzi zuen, Joxe Ripiau taldeagaz haustura ei zelako.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (VIII)

Malkoak lokatz artean

2003ko azaroa. Behingoa-gatik, eguraldia iragartzen dutenek bete-betean asmatu dute. Eguraldiak okerrera egin du nabarmen, errealitateak bezala. Begira, bata bestearen metafora bihur genezake. Baina, egia esateko, ez dakit zein aurreratu zaion zeini: eguraldia errealitateari, ala alderantziz. Izan ere, dena etorri zaigu gainera. Orok egiten du gure kontra. Leihoan behera doaz euri tantak, egunkariko azalean agertzen zen neska haren malkoak masailean behera zihoazen moduan. Behera eta behera, harik eta neskatoaren katiuskak itotzen zituen lokatzarekin bat egin zuten arte. Irudi hark zeukan indar poetikoaz konturatu nintzen argazkia ikusi eta berehala; neskatilaren malkoak, katiuskak lokatzean plisti-plasta, nola ingurukoen etsipen keinuen aurrean jarraitzen zuen kantari. Ezer gertatuko ez balitz bezala. Eta une hartan pentsatu (desiratu) nuen lokatzean nahasturiko malko haietatik sortuko zela ikastola berria, haizearen, elurraren zein ekaitzaren aurrean kikilduko ez zen eraikina. Lokatzaren tokia asfaltoak hartuko zuela; neskatoaren begietan, malkoen ordez, irribarrearen keinuak marraztuko zirela. Ikusten, nola batzuetan ez dagoen liburutara jo beharrik poesiarekin topo egiteko? Baina arrazoia daukazu, beti ez da hain erraza izaten. Irratia piztu eta atxiloketen berri izan dudanean, neuri ere amaitu zaizkit poesiarako gogoak. Euri tantak leihoan behera. 4

Gustura irakurtzeko

Zelan bultzatu irakurzaletasuna umeengan, Iñaki Zubeldia idazlearen arauera

Iñaki Zubeldia ikaztegietarrak ondo baino hobeto ezagutzen du umeen mundua; izan ere, maisua da, testu-liburu ugariren sortzaile eta egile dugu, eta narratiba eta ipuina landu ditu haur eta gazte literaturan. Hogei urte baino gehiago daroaz gaztetxo-entzako liburuak idazten: *Euskaldun bat Marten* (1982), *Nire aita ezin izan nuen salbatu* (1997), *Mirari begalari* (2001), *Iratxoen mundu zoragarria* (2002), eta *Pako belearen trilogia*, besteak beste. Zubeldiak zenbait jarraibide eskaini digu gaurko umeak biharko irakurleak izan daitezen.

«Pauso batzuk emotea komeni da umea irakurtzen ikasi aurretik»

Lehenik eta behin, liburu edo ipuin battek daukan xarma eta lilura adierazi behar zaizkio umeari, *“batez ere, ipuin klasikoek ondo islatzen duten mundu magiko hori”*. Liburuetan istorio guztiak daudela eta mezu ezkutu asko dauzkala jakinarazi behar diogu; *“azken batean, istoriaren barruan sartu, beste mundu batean balego bezala, eta emozio hori sentitu”*. Baina noiz gertatu behar da hori? Zubeldiak dioenez, irakurtzen ikasi baino lehen pauso batzuk emotea



Irakurzaletasuna txiki-txikitatik piztu behar da

komeni da: *“Txiki-txikitatik hizkuntzarekin jolastu behar du, aho-konapiloen, abestitxoen eta ipuin laburren bidez; eta ipuinak ere kontatu behar zaizkio (ipuin-kontalari bati entzuten badizkio, azkoz hobeto). Herriko liburutegina joatea ere inportantea da”*.

Garai horretan haurra oso txikia denez, gurasoek eduki beharko lukete aipatutako guztiaren ardura. Alabaina, *“askotan bai aita bai ama lanean daude, ez daukate denbora askorik, eta orduan, eskolaren esku uzten dute pixka bat lan hori”*. Iñaki Zubeldiaren berbetan, txikitan gurasoek interpretatu beharko dizkiote umeari liburuetan dauden mezuak: *“Haien bitartez jasoko ditu, autonomo bihurtu eta inakurtzeko ahalmena lortu arte”*. m

liburuak



Kilkerren hotsak
Edorta Jimenez
Susaa

Eleberri honen kontalaria Uriarte izeneko espioia dugu. Espainiako gerra garaiko pasadizo bereziak dakartza, baita dokumentu ezezagunak ere; esaterako, Alejandro Mallona alkate fusilatuarenak.



Bosniara nahi
Juan Kruz Igerabide
Aizkorri

Eleberri honetan gerratik ihesi dabilen familia bosniar baten bizitza azaltzen zaigu. Nezir gazteak kontatzen digu zelan alde egin zuten Bosniatik, eta zelan galdu zuten aita Bartzelonara ihesean zihoazela.

SMS mezuak >

Euskrz idztko

Sakeleko telefonoetan euskaraz idazteko hiztegia egin du Zazpiak Batman taldeak

Sakeleko telefonoan, mugikorrean edo segapotoan hatz lodiagaz emon eta emon dabiltzan gazteak gero eta gehiago dira. Zenbatezinak. Mezu laburrak (edo SMSak) asko zabaldu dira, berezko hizkuntza edo hizkera daukan komunikatzeko modu berri bat sortaraziz; alabaina, ia beti gaztelaniarako joera dago mezu horiek idazteko orduan.

«Segapotoaren mezu sekretuak liburuxkaren 50.000 ale argitaratu dira»

Lazkaoko San Benito ikastolako ikasleen eskariari jarraituz, Zazpiak Batman taldeko Kike Amonarrizek, Antton Olariagak eta Asisko Urmenetak SMSak euskaraz idazteko *Segapotoen mezu sekretuak* izenburuko liburuxka egin dute. *“Jolaserako, komunikaziorako, harremanetarako, dibertsiorako eta sedukziorako aitzakia da”*, adierazi zuen Amonarrizek aurkezpenean. Bere esanetan, mezuak euskaraz idazterakoan kontuan hartu behar diren arauetako bat araurik ez dagoela da. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Lazkaoko Udala eta Euskaltelen laguntzagaz, hiztegitxo honen 50.000 ale argitaratu dira. m



ZENBAIT ADIBIDE

- **Hiztegia:** Astelehen (astlh), Athletic (ATH), bikain (2kyn), Bizkaia (Bzk), diskoteka (dsktk), egingo al dugu? (ngoaldeu?), eskerrik asko (skrriksk), gaizki (gzk), kaixo (kxo).
- **Akronimoak:** Ken 7 (-7), bost axola! (5A), geroxeago deituko dizut (GDD).
- **Emotikonoak:** Pozik nago :-), arraioa! :-@, betaurrekoak ditut B-)
- **Iruditzak:** Pailazo *<):0 ipurdi .(.(musua){ harrituta nago (@_@)

Entzun >

Arratsaldekoa

Arantxa Iturbe kazetari eta idazlearen begirada azkarrak eta umore zorrotzak zuzentzen dute Arratsaldekoa izeneko irratsaioa; Tere Belokik eta Nekane Pe-agarikanok ere badihardute mikrofonoaren aurrean. *“Mundu hau –diote– gero eta zoroago dago, eta horren aurrean, proposamen interesgarriak egiten dizkiegu entzuleei: zineterapia, berriketaldi lotsagabeak edo sofatik mugitu gabeko bidaiak”*. Aurtongo Mikel Deunaren egunean jao zen Arratsaldekoa-k kalitatezko saioa izan gura du. Lanegunetan entzun daiteke, Euskadi Irratian, 16:00etatik 18:00etara.

Irakurri > HABE



HABEK, helduen euskalduntze erakundeak, izen bereko aldizkaria sotu zuen 1981ean, *“guztiz helburu didaktikoaz”*, bertako erredaktore Eskarne Lopetegik argitu digunez. *“Duela 21 urte”*, dio Lopetegik, *“euskarazko produkzioa ez zen gaurkoa bezain handia, eta ikasten zebiltzan helduei euskarazko testuak eskaintzea garrantzitsua zen”*. Denborak aurrera egin du, eta HABE aldizkariak ere aldaketak eduki ditu: *“duela hiruzpalau urte”*, are didaktikoagaoa bihurtu zen, ariketa praktiko gehiagoz hornitua. Urtean hamaika zenbaki kaleratzen dituzte, eta gainera *“lau CD argitaratzen saiatzen gara”*, Lopetegik azaldu digunez.

Harremanetarako: 943 02 26 00

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Gure espezieak >

Katagorria



- **Izen generikoa:** Sciurus vulgaris
- **Izen arrunta:** Katagorria, katamixerria
- **Berezitasunak:** 24 zentimetroko luzera; buztanak, 15-17 zentimetro
- **Bizilekua:** Basoak eta hiriguneak

Katagorriek benetan luzea eta handia daukate buztana; hori daukate hain zuzen ezaugarririk nabariena. Korrika egiten dutenean tenkatuta eroaten dute buztana, baina geldirik eta kuxkuxean daudenean altxatu egiten dute. Belarriak ere nahiko nabarmenak dituzte, ile multzoategaz.

«**Katagorria lurzoruan dagoela agertzen bagara, berehala igoko da zuhaitz batera**»

Gorputza gorrixka eta paparraldeazuria dauzkaten animalia hauek non dabiltzan jakiteko zuhaizpean uzten dituzten pinaburuen arrastoei erreparatu behar diegu; horiek jaten hasten direnean erdiko buruxka uzten dute bakarrik.

Hariztiak bezalako hosto erorkorreko basoetan gustura dabilta, pinudietara egokitzen hasi diren arren. Getxoko lorategietan dauden zuhaitzek hosto zabalak eta ugariak dituztenez, erraz topa daitezke bertan: esaterako, Azkorriko pinudietan edo Bolueko ibarra inguratzen duten basoetan; goizeko lehenengo orduetan Neguriko parkeak ere gustuko dituzte. Baina katagorriren bat lurzoruan ustekabean atzematen badugu, ziztu bizian igoko da zuhaitz baten gainera.

Iluntzean eta egunsentian dabil lagun saltari hau bizien; alabaina, udazkenean egunez ere jardun dezake bere zereginetan. Dakigun bezala, zuhaitz batetik bestera jauzi egiteko bizkortasun itzela dauka, baita enborretara igotzeko ere. Barazkijalea dugu katagorria; batez ere, fruituak, haziak edo onddoak jaten ditu.

Gaia > Tresna elektrikoen berziklatzea

Erretiro duina eman

Indumetal Recycling enpresa erandioztarra aitzindaria da tresna elektrikoak berziklatzen

Indumetal Recycling enpresa 1929an sortu zen Bilbon, ingurumenaren alorrean lan egitea zuela helburu. Gaur egun Asuan daude, eta 1984tik tresna elektriko eta elektronikoen berziklatzeaz arduratzen dira. Izan ere, Hego Euskal Herri osoan hori egiten duen enpresa bakarra da. Hain zuzen, lerro griseko (telefonoak, ordenagailuak, faxak...) eta lerro marroiko (telebistak, irratiak, argazki-kamerak...) tresnak berziklatzen dituzte. Lerro zurikoak (hozgailuak, garbigailuak...) ez dira berziklatzen oraindik, horretarako urrat-sak ematen diren arren.

Indumetal Recycling-ek bi bidetatik jasotzen ditu berziklatu beharreko tresnak, euren arduradunek adierazi digutenez: *“Batetik, hitzarmenak dauzkagu enpresakaz, zaharkituta geratzen zaizkien gailuak guri bialtzeko; bestetik, akordioa daukagu Eusko Jaurlaritzagaz etxeetatik datorrena gureganaino ailega dadin”*.

Etxeko telebista —esaterako— bota behar badugu, errazena Garbigune batera eroatea da. Uribe Kostan, hain zuzen, hiru Garbigune daude, Erandion, Ge-

txon eta Sopelan. Edonor joan daiteke horietara, baldintza batzuk beteta: hasteko, nortasun agiria erakutsi behar da; bestalde, pertsona bakoitzak, astero, 3 metro kubiko edota 750 kilo zabor eroan ditzake asko jota. Indumetal Recycling-ek, Eusko Jaurlaritzak eta Eroskik bultzatutako kanpainari esker, iaz mota honetako tresnatan 1.193.092 kilo jaso ziren.m



Indumental enpresako behargin bat lanean

Sasoia da > Arabar-zozo pikartak



Orain dela gutxi ailegatu dira gure artera, Ipar Europako hotzetik ihesi, arabar-zozo pikartak (jeneralean Gaztelako zozoa esaten diegun txoriak alegia). Negua bertan igaroko dute, eta ehun aletik gorako taldeak ikusteko aukera edukiko dugu, beraz, hurrengo hileetan. Hodei beltza bezala dabilta arabar-zozo pikartak, denak aldi berean mugitzen, hiritako solo eta zuhaitzetan janari bila. Portugaleten egiten dute lo eurretako askok, eta goizero, denak ordu berean, jatekoaren bila abiatzen dira. Posible da Getxoko hainbat lekutatik ikustea, Bolako hondartzatik esaterako, eta diotenez, merezi du gainera.

Ana Rosa Tercero > dantza irakaslea

“Dantza nire mundu osoa izan da, lanbidea baino askoz gehiago”



Argazkian, Ana Rosa Tercero eskola ematen

Ana Rosa Tercero getxoztarrak Madrilen eskuratu zuen dantzari titulua eta dantzari lez jardun zuen motor istripu batek bere asmoak hautsi zituen arte. Patuaren ondorioz antzezlekuetatik kanpo jardutera behartuta, irakaskuntzara zuzendu zuen dantza egiteko berez daukan sena. Gaur ehunka ikasle biltzen dituen Getxoko Dantza Eskolako ugazaba da, eta dantza klasikoa irakasteaz ere arduratzen da bertan.

—Dantza egiteko sufritu egin behar da?

—Nik ez nuke hainbeste esango. Aha-legina da, ez sufrikarioa. Eta diziplina handia ematen dio norberari. Guraso batzuek esan digutenez, ikasle batzuek ikasketetan ere hobera egin dute hemen hasteaz geroztik, eta hori dantza egiteko nork bere buruari inposatu behar dion disziplinagatik da.

—Dantza klasikoa irakasten duzu, eta hori da gustukoaren duzuna. Zer dauka dantza klasikoak besteek ez daukatena?

—Bada, nik uste dut berau dela nik hobere sentitzen dudana nire gorputzean, eta beraz nire ikasleei hoberen irakats diezaiokedana. Beste dantza mota batzuk ere landu ditut, baina sentsazioek ez naute dantza klasikoek adina asebate. Pentsa, momentu batzuetan dantza nire mundu osoa izan da, lanbidea baino askoz gehiago. Badira bigarren mailakoak iruditzen zaizkidan beste kontu batzuk, eskolen truk kobratu beharra esaterako; artea denez, iruditzen zait ez litzatekeela horren

ordainez dirurik jaso behar, baina ez daukat beste irtenbiderik, honetatik bizi egin behar dudalako.

—Obsesioa da zuretzat dantza?

—Obesioa? Nik uste dut ia-ia filosofia dela. Dantzak beste mundu batera eroaten zaitu, eguneroko bizimodu arruntean lantzen ez diren elementu batzukaz lanean zabiltzalako; dantzariaren mundua eta dantzarik egiten ez duenarena desberdinak dira, dantzariak bere gorputza eta espazioa ezagutzen eta erabiltzen dituelako.

«**Dantzak beste mundu batera eroaten zaitu**»

—Zergatik dabil hain gizon gutxi dantza klasikoan?

—Txikitan hasten dira batzuk, baina adin batetik aurrera dantza utzi eta beste gauza batzuetan hasten dira: pilota, judoa...

—Izan ere, badago mito bat, dantza klasikoa egiten duten mutilak oso “gizonak” ez direla esaten duena, ezta?

—Bai, hala da, eta a zer gezur handia! Guztiz kontrara da: dantzari baten prestakuntza fisikoa atleta batena bezalakoa da, baina gogorragoa, osoagoa. Dantzariak hegaz egin behar du, jiratu, orekari eutsi eta gainera neska altxatu.

—Zergatik egiten da txalo dantza eskola baten amaieran?

—Oso antzinako ohitura da. Dantza klasiko eskoletan irakasleak ikasleei txalo egiten die haiek eskolan zehar egin duten lanaz pozik badago, eta alderantziz. Batzuetan ez da txalorik egiten, ez direlako gauzak ondo egin, baina jeneralean bai, egindako ahaleginaren esker ona delako, bai alde batetik zein bestetik. m

Gogoa > Alkohola

Nagore Etxebarri psikologoa

Behin baino gehiagotan, nahasketa psikologikoen bilakaeran alkoholak gauzak korapilatzen dituela esan dugu. Danok dakigu alkohol gehiegi edatearen ondorio fisiologikoak, oro har, zeintzuk diren: berba egiteko zailtasunak, ziurtasunik gabeko ibilkera, koordinazio eza...

Psikologikoki berriz, alkoholaren funtsezko sintomatologia ondokoa da: jokaera aldaketa, zenbait kasutan erasokor jokatzeko joeraz lagunduta; arretari eusteko zailtasuna; suminkortasuna; euforia; depresioa; labilitate emozionala, eta lan edo gizarte jardueretan narriadura.

Zer dela eta hau guztia? Alkoholak, nerbio-sistema zentralaren depresorea izanik, hasieran deshinibitzaile gisa jarduten du eta ondo sentiarazten gaitu. Hasiera horretan argi, zabal eta hiperaktibo sentitzen gara. Baina gero mugimendua moteltzea eta baldarkeria datoz, lehen aipatutako sintomakaz batera.

Ondorioz, ondo sentitu nahian edaten jarraituko dugun arren, behin neurria gaindituta okerrago sentituko gara. Jokabidea kontrolatzeko gaitasuna galtzeak gure buruarekiko ziurtasun eza ekarriko du, eta horri baldarkeria gehitzeak lur jota utziko digu autoestimua: geure bizitza kontrolatzerik ez dugula eta dena txarto egiten dugula pentsatuko dugu. Beraz, edozein nahasketa psikologikotik irteteko guztiz desegokia da alkohola, gure buruarekiko zalantza sortarazten digulako eta behar bezalako autoestimua eraikitzea eragozten digulako.

Gorputza > hilekoa Hainbat mito

Iñaki Brouard ginekologoa

Hilekoa umetokiak hormona maila desberdinen aurrean ematen duen erantzuna da. Hormona horiek odol jario bat sorrarazten dute, ziklikoa (hilerokoa) izaten dena. Sintomarik arruntenak hauek dira:

- **Dismenorrea:** hilekoak eragindako mina da, ondoeza edo izugarrizko mina izan daitekeena. Min handia izaten denean, farmako bidezko tratamendua gomendatzen da.
- **Hileko aurretiko sindromea:** hilekoa eduki baino lehen jasaten diren aldaketa fisiko eta emozionalak dira.



«Hilekoa 28 eguneko zikloa dela pentsatu arren, oro har 25 egunetik 35 egunerakoa dela esan behar da»

Hilekoa 28 eguneko zikloa dela pentsatu arren, oro har 25 egunetik 35 egunerakoa dela esan behar da. Hala ere, epe horren barruan beste aldaketa mota batzuk ere ager daitezke:

- **Amenorrea:** hilekoa agertu ez izana edo desagertzea. Hilekoa ez agertzearen zergatia bilatzen hasteko, lehenbizi argitu behar da haurdunaldirik dagoen ala ez.
- **Metrorragia:** gehiegizko edo zikloz kanpo-ko odol jarioa.

Mito eta errealitateak

—*Hilekoa edukita ezin zara haurdun geratu.* Gezurra, zaila da baina gerta daiteke.

—*Bainatzea desegokia da hilekoa daukazumean.* Gezurra. Are gehiago, komenigarria da.

—*Hilekoa daukanak ez du maionesarik egin behar, edo landareak ureztatu...* Gezurra, ez dauka zer ikusirik.

—*Asko argalduz gero ez da hilekoa etortzen.*

Egia, hilekoa gertatzeko gutxieneko koipe eta ehun proportzio bat eduki behar da.

—*Ezin daiteke sexu harremanik eduki hilekoarekin zauden bitartean.* Gezurra.

—*Ezin da tanpoirik erabili.* Gezurra, erabil daitezke eta emakume batzuek nahiago dute hori konpresak baino. ^m



Larruzko jaka beltza emakumezkoek zein gizonezkoek eroango dute

03 udazken-negua Euriagaz datozen joerak

Egunak laburtzen doazen honetan (ordu bat ere "lapurtu" berri digute), zelan jantziko garen jakin gura izan dugu. Hona hemen, euria, hotza eta gaua nagusi diren sasoian, armairuan zain izango ditugun joera guztiak. Ez galdu haria.

Emakumezkoei dagokienez, 80.eko hamarkada itzuliko da (inoiz alde egin du?), eta arrakasta edukiko du *Flashdance* filmaren estiloak; joera honek kamiseta handi-handiak ekarriko ditu, soineko motz erakargarriak bihurtuta, sorbaldeetako bat beti agerian dela janzteko. Beste pelikula ezagun baten eragina ere nabaria izango da udazken-neguhonetan: *Matrix*; izan ere, larruzko jaka beltzek denok liluratu gaituzte ibiltokietan. Hori bai, estu jantzi behar dira, eta papar-hegal handiakaz.

Bestalde, marrez gainezka ikusiko ditugu arropak guztiak. Burutik oinetara. Horren jatorria 30.eko hamarkadako tenis-pistetan aurkituko dugu.

Punta-puntako oihal, berriz, muselina, gazak eta zetak izango ditugu; tweed izeneko ehunaren eta Eskoziako tartanaren arteko nahasketagaz ere bete-betean asmatuko dute emakumeek. Zuria eta beltza konbinazio ezin hobea izango da, baina debekatuta dago beste koloreakaz nahastea.

Zergatik heldu estilo bakar bati gizonezkoak? Sasoi honetan pertsonaia desberdinak antzeztu ditzakegu arropa aldaturaz bakarrik: unibertsitarioa (artilezko jertse lodia, eta unibertsitateko irudi-tes-tuak badauzka, hobe), *Matrix* look-a (marroia, granatea, eta zelan ez, beltza bezalako kolore ilunek agintzen dute), gerrillaria (janzki militarrek jertse zabalakaz eta lokarridun oinetakoakaz) eta ehiztaria (artilea, tweed-a eta pana bezalako oihal beroak edozein tokian janzteko, ez bakarrik landan aldean). ^m

KONTUAN HARTZEKO


• **Emakumeak:** larruzko jakak, itze-lezko minigonak, kamiseta handiak, 'pitillo' galtzak eta takoi oso altuak; ausartentzako, berriz, galtza motzak, apaindura metalikoak eta kiroletako zapatilak gonakaz.

• **Gizonak:** artilezko jertse lodiak, alboetan patrikak dauzkaten galtzak, larruzko berokia, arropa militarrek eta lokarridun zapatak.

I
I aki
Bitxitegia

Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345
Algorta



Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

EGINKOR
INMOBILIARIA

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria



Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskalera
ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel.& Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerre
ALGORTA

ALBE alerik ale

Aurpegi berriak Eskolara etorriak

Arkaitz Gomez > Afizioa ofizio bihurtu nahian

Portu Zaharrean du habia, eta bertsogintzaren munduan, berak aitortzen duenez, egiteko dauka lan handia. Arkaitzek zer duen? Bada, ikasteko gogoa, irudimena eta plazagizona izateko behar adina kemen!

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Bi urte beteko dira bertso eskolaren martxan sartu zinenetik. Zer balantze egiten duzu?
—Eskolan sartu nintzenean ezer gutxi nekien bertsolaritzari buruz, eta hasieran gogorra egiten zitzaidan besteen erritmoari jarraitzea. Doinuak, neurriak... denak nahasten nituen, eta kostata osatzen nituen bertsoak. Oraindik ere kostatzen zait, baina gero eta baliabide gehiago ditudala konturatzen naiz, hizkuntza bera ere lehen baino gehiago lantzen dudalako.
—Eskola egunetan, ofizioaren bat proposatu behar denean, zure ideiak beti irudimentsuak izaten dira...

—Egia esan, ni bertsolaritzan maila guztietan hasi berria naiz, eta iruditzen zait oso garrantzitsua dela eskolan egiten diren ariketa guztietan parte hartzea, nork bere ideiak aportatzea. Eskolako giroak horretarako aukera ematen du, eta gaiak proposatzea, gaiak formulatzea, hizkuntzarekin trebatzeko modu bat da, oso lagungarria niretzat.
—Eskolako kide asko, zu barne, maila oneko kirolariak dira. Baina bertsolariek ez al dute parrandazale fama?



Arkaitz igerilari bikaina dugu, eta gero eta hobeto egiten du igeri bertsogintzaren uretan.

—Nik ez dut uste bertsolaritzaren eta kirolaren artean lotura zuzenik egon behar duenik, baina egia da eskolako lagun asko kirolari onak direla. Batzuk bizikletaz ibiltzen dira beti, mendizale amorratuak ere badira.... Eta bertsolari handien artean ere adibide asko aipa daitezke. Nire ustez, ez da batere zuzena bertsolariei jarritako parrandero fama. Parrandan ibiltzen gara, nola ez, baina bertsolaria, oro har, oso pertsona sana da.
—Zuk zeuk aitortu duzu oraindik ere asko duzula ikasteko. Eredutik jakin bati jarraitzen al diozu?

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Arkaitz Gomez Agirre.
- ▶ 1977ko abenduaren 30ean jaioa, Barakaldon.
- ▶ Algortan bizi da aspalditik.
- ▶ Delineazio ikasketak ditu.
- ▶ Getxoko hondartzetan sorosle lanak egin ditu, eta igerilekuko monitore ere izan da.
- ▶ Ur-poloan aritu da hainbat urtez.

HIRU LERROAN

TXAPIRI

Bertsogartzailea: **Arkaitz Gomez**
Doinua: **Txiritaren Bart ametsetan**

1

Kulturan alde eman zenuen zure partetik oparo eta kartzelan sartu nahi dute egindakoa luzaro. Estatu zital eta maltzurak bota egin digu hordago! eta etsitzen baldin badugu, gure kultura akabo! Kartzelan Txapi sartzearekin gizartea preso dago.

2

Estatuaren ukaziotik datorren baieztapena, «gu» izateko ez dela behar etsai arrotzen baimena. Euskal Herria, herri bat gara guztiz burujabe dena ta falta zaigun gauza bakarra «gu» izateko kementa; kemen hori da, kemen handia, Txapi txikiak duena.

3

Aditu eta jalgi plazara, Euskal Herria itzartu! Euskal hizkuntza eta kultura ezin da kaiolan sartu. Bertsoen oinak eta doinuak ezin dira kateatu! Hegaz egiten kate artetik bertso hau zaigu askatu, gure herria bertan hiltzea ez delako gure patu.

“Gaur egun neure mailan gustura kantzatzea dut helburu, baina bestea ere helduko da, zergatik ez!”

—Eskolan guztiengandik ikasten duzu zer edo zer. Baina niretzat oso garrantzitsuak izan ziren azken bertso saio mundiala prestatzeko egindako batzarrak. Gaiak eta saioa bera prestatzen ibili ginen, eta nik orduan asko ikasi nuen, batez ere Aitzolengandik, eta baita Josebarengandik eta Peiorengandik ere. Bakoitzak berea aportatzen zuen, eta oso bilera interesgarriak izan ziren.
—Gai jartzaile moduan agertu zara jada plazan. Eta bertsolari moduan, noiz?
—Gauzak apurka-apurka lortzen dira, eta nik momentuz nahikoa daukat bertso bat hasi eta amaitzeko gai izatearekin. Oraindik ere bertsotan egiten dudanean ez dakit bertsoa amaituko ote dudana, eta

bertsoa osatzea lortzen dudanean, benetan gustura sentitzen naiz. Lasaitu ederra hartzen dut bertsoa biribiltzen dudanean. Gainera ni nahiko pertsona lotsatia naiz, eta plazan kantari agertzeko segurtasun handiagoa behar da. Gaur egun neure mailan gustura kantzatzea da helburua, baina bestea ere helduko da, zergatik ez!

Eskolara aurpegi berriak, ideia berriak etortzen dira une oro. Gainera, Arkaitzen kasuan, ideia horiek desberdinak dira, bereziak, baina denak ere aberasgarriak. Egun eskolan hasi berria dena, ezagun-ezaguna izango duzue laster. Denbora da horren lekuko! m

BERTSOAGENDA

BERTSO DESAFIOA *San Martin jaiak*

Azaroak 8, 13:00etan
Algortako Hezetasun auzoan

Bertsolariak:
PAIATARRAK (Fredri + Xabi) vs
AGIRRETARRAK (Unai + Eñaut)

Gogoratu ALBEko web orrian
bertso agenda gaurkotua duzuela:
www.albegetxo.net

Tomas Abarrategi

Aurreko zenbakietan gramatika lar landu dugula? Horrelakorik gerta ez dadin, eta aspertu baino lehen, irakurle, elkarrizketa bat dakargu oraingoan. Tomas Abarrategigaz egon ginen berbetan eta kontatutakoa interesgarria da oso. Tomas Berangon jaio zen 1947an eta gaztetan Idahon ibili zen. Hona hemen, bertan bizi izandakoaz kontatu ziguna. Horrez gain, beste hainbat kontuez aritu ginen, hurrengo batean ekarriko ditugunak.

Testua: Urtzi IglesiaErreturua: Asier Mentxaka

—Gaztetan, Ameriketan egon zinen, ezta? —Bai, sei hillebete egin neuzen Ameriketan. Atziñe jente yoten zan ta batzuk etorten ziren ta beste batzuk geratu iten ziren han. Baien gu junta gintzen hiru baserritar ta hasi gintzen: “jongo gara hara?” ta “ez dau balorerik” ta “baz-kari bet jokatuko dogu”. Egin gintzen biztu apur bet ta ein genduzen papelak eta jon gintzen; hogetahiru urtegaz, ni eon nintzen beharren orduntxe urtebete zera baten, fabrika baten; beste biek ez. Ta gero sei hillebete egin-de etor nintzen ni hona, ze telegrama bat, aite

eola txarto ta etor nintzen. Ta aite eon zan han beko landan, ta esan eusten: “niri ez bronkarik bota, eh? Ama dao txarrao”, ta bueno. Gero, etorri ta hiru hillebete barrun zabaldu neun haragitegi. Han euskaldun asko dauz, Idahon. Nik egin neun lan rantxoan, ta auki euezen sei milla ardi. Egiten ziren hiru artegi ta urteten da errebañu ta doa pasteatzen, gaur zati bet, biher beste bat ta apurke-apurke. Ertzaiñak eroaten dau bere zaldiez ardiak ta kanperu da daruna karroa. Karroa da lau erruedako, toldoaz tapa-ta, deko ohia, deko txapa txikitxu bet burniz-

ko, eta duzti, ta gero beste gurdiñe bat engant-xata horrerri ta han egoten dire ure, ze desiertun ez dau urerik. Han ez dozu ukusten gehiau lurre ta lurre baino, ta pasten kasi lau hillebete. Nortera heldu ta urrien bueltan etorte ziren kamioiak sartu bildotsa danak ta eroate euezen kamioiatan. Ta gero hori denpore duzti ostabe-re behar dozu etorteko rantxora. —Behar gogorra zen, ezta? —Nik topetan neun txarrena bakizu zer dan, hautse asko, ta dutxa bat ez dekozu; han kanpon ein behar dozu garbitu, siketu eta ez deko-zu dutxa bat bere ez hartzeko, ta gero bizimodu karro baten barrun. Ni nintzen kanperu, nik eroaten neun karro; karro tiraten da hola-

“Indiok dire amerikanuk autentikuek, ez beste batzuk. Han erreserbatxu baten, gosez hilik bizten dire; hortako deretxorik ez dao”

ko zaldi handiakaz. Niri ez yasten disgustaten, eh? Baie hautse... gero ya norten ez dao haut-serik, han por lo menos asten birriten garbiten zara ta ondo zauz. Gero bueltan ez dao hainbeste hautsea ze eiten dau lez edurre asko ta hotz asko... Hotza egiten du handik ta karro-an egin behar dozu lo, kasi hamar hillebete egiten dituzu basoan. Ta dire baso batzuk... bueno! Honek ez dire... hango basok ez dere akaburik, hango terreno itzela da, haregatik deke hainbeste ganadu. Ez dozu ikusten pertsona bat baino egun duztien hainbeste denpo-ran, gogorra da. Gero ya norten bai, ze han norten, Kanadan ondorarten joaten gintzen gu, ta han ya dauz turista asko ta etorten ziren gure karrure. Batzuk auki euen guk baino suer-te gehiau ze batzuk erote euen land roverra. Zaldiek behar gehiau emoten deu, besteaz ez, arrankaten dozu ta bazoaz. Gero herriren bate-

ra gure badozu martxa auki, land roverraz yon in leike baia zaldiekaz nora... ezin zara inora yon. —Kontratoa hemen eginda joan zinen hara? —Guk hemendi deku kontratu, seguridad sozialez ta duztiez. Ondo egon zan hori, lo que pasa que hemen bere aitu non eon zan tranpea: hemen eitea kontrato, edo Frantzien eitea, eon zan berrota hamarreko diferentzia dolarrena, eh? Naparrak ze iteuden, hemetik yon beharren, handi yoten ziren. Kabreo bat! Beharra iguala, ta, naparrak eta guk zer dekogü diferente ba? Ez gara danak euskaldunek, ala? Diru handi zan ordun, eh? —Zelakoa da Idaho?

—Gustaten dakona, por ejemplo, paisaje; poli-te deko, errekek ta bitxo asko ikusten dire, bitxo eskandalu dau han. Egiten neuzen goize-an neure hogei o hamar kilometro segun ze kuadraten dan, itziten neun bazkari einte, kois-ten neun neure zaldi ta yoten nintzen menditi, beti egiten neun hori, asko gustate yasten, ze duztirik ukusten da, eh? Basakatuk; otsoak berebai, otsoak be asko dauz. Esate euskun rantxoko uzabak otsoa danak hiletko, baie, aitu zer pasten zan, gero dagoz guarda forestalak eta: “Eh! Zuek ezin dozue hil bat bere, bakarrik ardie hiltan dauena, ze ezpabere kartzelara” esate euskun. Baie rantxoko uzabak esate eun: “hiltan badozuz hogei dolar; zuk hil nik paga-kotzut eta; ademaz guardak ez dauz leku duz-tin”. Bat hil neun, ardi bi ta beste hiru-lau bil-dots jaten daula; ta bueno, ekarri eusten dirua ta galoi bete ardo. Han ez dao ardorik, ekarte eun Kaliforniatik, ardo lodi bet. Gero beste bat hil neun, aberea yaten topa nun. Paisaje polite da, terreno ikusgarrik dekoz, oso garbi; ikusga-rrri da. Niri ez datena gusta da herrik dagoze-nak, Nueva York por ejemplo, ukusi bere, terri-ble da. Ta hango beltzak eta amerikanuk ez dauzen lez hain zera, oso txarto. Biek dire razi-s-tak, eh? Haurek beren motibo dere, ze esklabu ixen ziren... ta indiok zer? Haiek zer, haiek koitteduk? Haiek dire amerikanuk autenti-kuek, ez beste batzuk. Han erreserbatxu baten, gosez hilik bizten dire; hortako deretxorik ez dao. Bai, terrenu eskandalu, paisaje enkantado-ra, baie gauze tristek han estaldute. m

Gurberbake29

ZELAN ESAN

Seguru gagozela / ez gagozela

Testua: **Xabi Bilbao**

Zer esan dinogunagaz seguru gagozenen

- Seguru nau hau hólán dala / dana.
- Eztekot dudarik hau hólán dala / dana.
- Posture ingo nauke hau hólán dala / dana.
- Argi baño argíau dau hau hólán dala / dana.
- Bistan dau hau hólán dala / dana.

Zer esan dinogunagaz seguru ez gagozenen

- (Eztakit seguru, baia) **nik esango nauke** hólán dala.
- (Eztakit seguru, baia) **esan lei/pentsa lei** hólán dala.
- **Itxúre deko** hólán dala.
- Holan ei da.
- Hólán íxengo da.
- Etorri íxau da / Ikusi íxau dau (=etorriko zen, ikusiko zuen).

Bateri seguru daun edo ez preguntateko/itanduteko

- Seguru zauz?
- Hólán da hori?
- Ixen leite hori hólán?

ADIBIDEK

—*Zer, topa dostezu áutoko aberi?*
—*Bai, **pentsa lei** zéozek ebagi in dáule hau kábletxu, árgiteko...*
—*Zéozek? Zélan **ixen leite** hori ba?*
—*Eztait, **sagu betek** edo holan **yan íxau dau**. (= jango zuen).*
—*Sagu betek? Zu zara **sagu majo!***

—*Seguru zauz **heméti** etor **gárala?***
—***Eztákit seguru**, baia **honek aparátuk** ésangosku...*
—*Aparátuk? Ze **demóniño** dekozu hor?*
—*Itxédoizu ta... GPSk diño 13° 45.637N 120° 55.800E.*
—*Zer?*
—*Ta horrek **koordinadak** mapan **hámentxe íngirun óngo** (egongo) **direz...***
—*Koordenadak? **Hámentxe íngirun?** Baia zer **zabiltzez hainbéste trapaseriez?***
—*Zauz **lasái!** **Posture ingo nauke** bázkalduteko etxen **gáuzela!***
—*Bazkalduteko? **Argi daune da nónor** ezpádator **hemén in berko dule** (behar-ko dogula) lo ta dana!*



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Arrozkoletxe

Egiteko postre gozo eta errazik badago, hauxe duzu, lagun. Ipini esnea azukrearekin batera lapiko batean sutan. Irakiten duenean arroza, kanela eta limoi azalak bota. Hau guztia ondo eragin eta su ahulean, egiten utzi. Lantzean behin lapikokoari eragin hondoan lotu ez dadin. Hiru ordu laurden inguru itxaron behar da arroza egin arte. Arrozkoletxea lar loditzen dela ikusten baduzu, esnea gehitu. Amaitzeko kanela apur batekin apaindu. On egin! m

osagaiak

- arroza (125 gramo) • azukrea (gustura) • esnea (litro bat) • kanela • limoi azalak



itsaso arana / jolastoki-koa

Galderak

ardoei buruz egiten ausartzen ez garen galderak

- 1. Arrainekin ardo beltza edan daiteke?**
Arrain urdina bada, oso ondo doakio ardo beltza. Beltza bakailao, erreboiloarekin eta saltsan kozinatutako arrainekin oso ondo doa. Ardo beltz hauek arinak, gorputz gutxikoak eta gazteak izan behar dute.
- 2. Ardoa denbora pasatu ahala hobetu egiten da?**
Ardoa etengabe aldatzen ari da. Hobera edo txarrera egin dezake. Denbora igarotzen den neurrian, samurtasuna eta espezien aromak gehiago azaltzen dira; mahatsaren ezaugarriak eta lurraren sena, berriz, galduz doaz.
- 3. Ardoak bidaiekin txarrera jotzen du?**
Gaur egun, ardoak edozein bidaia gainditzeko prestatuak daude. Bidaia baten ondoren 10 egun itxaron behar dira ardoak bere onera itzultzeko.
- 4. Ardo zuriak urteen poderioz txarrago jartzen dira?**
Egurretan egindako ardo zuriak bost urte igaro ondoren hobetzen dira. Egurretan fermentatutako ardo txuriak bi urte igaro ondoren hobetzen dira.
- 5. Ardo gorriak hasiberrientzako ardoak baino ez dira?**
Ezta pentsatu ere! Kontua da ardo hauetan sorterriko mahatsaren kalitatea ezdela aintzat hartzen. Ardo mota honetan freskotasuna, gaztetasuna eta fruta zaporea izatea estimatzen dira.
- 6. Mahats beltzen mustioa beltza da?**
Mahats zurien kolore bera du. Ardoaren kolorea mahatsaren azalak ematen du. m

Algortako sagardotegia

Gipuzkoarren inbidia



Villena-García familia; ezkerretik eskumara, Alaitz, Begoña, Patxi eta Nagore

Algortako Sagardotegia 1850. urtean eraikitako algortar estiloko udako etxe batean kokatuta dago; bertokoek eraikinari Palme-ren Jauregia deitzen zioten garai batean. Sartu orduko berehala ohartuko gara altzari guztiak egurrezkoak direla; kanpoaldea, berriz, harrizkoa dauka, eta lorategi eder batek inguratzen du etxea. Iraganera eroaten gaituen giro horretan egiten dute behar Villena-García familiakoek: Patxi ugazabak, Teresa sukaldariak eta Alaitz eta Nagore alabek. Orain dela 16 urte hartu

«Bakailao tortilla da sagardotegiaren jakirik gozoena»

zuten Algortako Sagardotegiaren ardura, baina aurretik bazeukaten eskarmentua horretan, “Olabeagan ibili ginen 1980tik 1992ra bitartean, Bizkaian ireki zen lehendabiziko sagardotegian hain zuzen”, diosku Patxik. Daukaten egurrezko labean Uribe Kosta osoko bildotsik onena prestatzen ei dute; landareikatzezko parrilla ere badago, eta jakina, sagardoa txotxetik ateratzen da zuzen-

zuzenean. Hiru jantoki daude sagardotegi honetan: goiko solairukoan 70en bat lagunentzako lekua dago, eta behekoan, 40rentzat, eta uda honetan ireki duten terrazan (negurako ere egokituta dago) 30 pertsona inguru sartzen dira. Prestatzen dituzten jakien artean, Patxi Villenak bakailao tortilla nabarmendu digu, “*munduko onena*”; bisigua, legatz kokotea eta txuleta ez dira atzean gelditzen. Sagardotegi honek aukera zabala eskaintzen dio bezeroari, lau menu desberdin dauzka-eta: egunekoa (7,5 euro), taldeei eta gazteei zuzendutako menu berezi bi (20 eta 25 euro), karta (27-30 euro bitartean), eta sagardotegi baten berezko menua (25 euro). Beraz, mokofinak asetzeko moduko eskaintza. Domeketan eta astelehen eta martitzen gauetan zarratzen dituzte ateak; zabalik topa ditzakegu, ordea, 13:15etik 16:00-etara, eta 20:30etik 23:30era. m

ALGORTAKO SAGROTEGIA

Konporte kalea 3, Algorta

Telefonoa: 94 460 41 77

Eguneko menua: 7,5 euro



zure
dirulaguntza
behar-beharrezkoa
dugu

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea

adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO


OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zozoak beleari ipurbeltz. Zure bikotekidearekin arazoak dituzula ematen du. Animo! Egun gogorrak pasa eta gero, datoenak oso lasai igaroko dituzu. Energia horrekin kirola egiteko gogoa izango duzu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Asteburu zoragarria izango duzu, astean zehar izandako nekeak alde batera utzi eta primeran pasatuko duzu. Lan proposamen ugari izango dituzu, baita diru mordoia irabazteko aukera ere: ez joaten utzi.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Osasunez ondo ibiliko zara eta maitatua sentituko zara; ez da ilusio hutsa, horrelako uneak ere izaten dira bizitzan. Lotsatuta zaude zure azukre koxkorra aurrez aurre ikustean? Esaiozu zeozer, motel, bestela haserretu egingo da.

AITZURRA




(Martxoak 21 apirilak 19)
Buruko min izugarriek ez zaituzte bakean utziko; lagunek, berriz, bai; gura duzuna egiteko aukera emango dizute. Marte zure zeinuan sartuko da eta inoiz bizi izan duzun amodiozko istoriorik patetikoena jasan beharko duzu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Txakur kaka bat zapalduko duzu eta zorte handia emango dizu horrek hamabostaldi osoan. Pluton zure zeinuan sartuko da martitzenean, eta horrek osterera erabateko nekeak ekarriko dizkizu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Jokoan zorte izugarri ona izango duzunez, kupoi bat erosi kalean ropatzen duzun edozein saltzaileri. Bizioak alde batera utzi eta hasi kirola egiten: aerobic-a ez da nahikoa.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Pertsona bat ezagutuko duzu eta horrek onerako aldatetarik ekarriko ditu zure bizitzara. Zure gorputzak ezin dio daramazun erritmoari eutsi; noizean behin komeni da atsedeen hartzea.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Asteburu honetan ihesalditxo erromantiko bat egiteko aukera izango duzu. Ondo pasa! Familia arteko arazo batzuk izango dituzu. Ahalegindu zaitetz ahalik eta lasterren konpontzen.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Bakarrik bazaude, datozen egunotan erraz aurkituko duzu zurekin egon gura duen neska-mutilen bat. Etengabe lanean aritutako asteek etekinak ematen hasiko dira: jende guztiak zure lana goraipatuko du.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Zorionak, Meta. Zenbat urte egin dituzu? Hainbeste? Lasai, inoiz baino ederrago zaude-eta. Dena den, itxuraldaketa txiki bat behar duzu: Europa berria, beste ile koloren bat... edozerk balioko du.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Espero ez zenuen diru kopuru bat itzuliko dizu norbaitek; erabil ezazu nahikeria hori erosteko. Gertaera batek benetan zure lagunak zeintzuk diren erakutsiko dizu: ustekabe bat edukiko duzu.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Une aproposa da loteria erosteko edo kiniela egiteko. Pluton zure sisteman sartu delako. Zure memoria eskas horrek nahigaberen bat ekarriko dizu egunen batean. Egin kontu gure aholkuari: erosi agenda bat eta erabili.



mungia

oKINDegia


Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorrak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzaile. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baserritarrak ez direnak.

Goitik behera

1. Sailkapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorilla. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

Soluzioak

K	V	R	H	A	T	L	E	K	A	V	K
A	I	U	T	A	K	I	D	A	V	D	I
T	A	R	T	B	A	B	A	U	T	E	M
S	U	R	I	B	A	M	A	T	E	M	A
I	E	A	O	K	U	T	A	V	K	R	A
K	A	R	E	T	A	R	A	T	K	R	A
R	O	K	K	A	V	Z	I	V	L	A	T
V	R	U	K	A	N	S	I	T	I	S	I
N	U	N	A	B	A	V	S	V	A	S	V
E	A	I	D	E	A	S	V	A	S	V	A



eUSKALDUNON
denbora-pasa eta
hitz jokoan hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
HELBIDEA
HIRIA
LURRALDEA P.K.
TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....

LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN
Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xedera.com



www.xedera.com



JULEN ARESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Elexaldeko futbol taldea (Leioa), 1953

Altamirako Eskolen aurrean hartu zen goiko irudia. Bertan Elexaldeko mutikoak azaltzen dira, denak 10 eta 12 urte bitartekoak. Altamira izena eskolen atzealdeko baserri batena zen, eta hortik zetorkion izena eskolari. 1936ko gerra baino lehen, baserri hura Batzokia izan zen, gutxienez beheko solairua.

Eskolen aurrean zelaier bat zegoen, eta han jokatzeko zuten futboleko inguruko gazteek inguruko taldeen aurka: Neguri, Leioa, Erromo, Goierri.... Aldagela ederra zuten: eskolen alboko Manolo Bilbaoren korta.

Elexalde ingurua beherago zegoen, eta bertan zeuden eliza, abadetxea, Petraren taberna (Petra Beitia alarguna), Matoneko taberna eta denda (denetarik saltzen zuen denda haietako), hiruzpalau etxe eta umetxoen eskola. Horregatik argazkiko mutikorik gehienak, Elexaldekoak izan arren, Altamirako eskolan zebiltzan, nagusiak ziren eta. Eraikin hauetatik guztietatik Altamira etxeak eta elizak baino ez diraute zutik.

Azpimarratzekoa ere bada, bai Altamirako eskolak, bai Elexaldekoak, Ameriketara joandako Jose Ramon Aketxe leioaztarren emoniko diruaz eraiki zirela. Azkenik esan, auzo honen izena ez dela, eta ez zela, ez Altamira ezta Elexalde ere, Sarriena baizik. Antza, inguruko Sarrene baserritik (gaur egun Solaetxe jatetxea) dator izena. m

Zutunik: Imanol Bilbao, Joseba Zeanuri (entrenatzailea GB), Xabier Olabarrieta, Roberto Perez Mendieta, Julen Aresti, Manolin Murueta “Errekalde”, Iñaki Aresti, Lauren ?, Jose Mari Beitia.

Makurtuta: Nabarro “Nabarrito”, Alex Mezo (GB), Jose Antonio Ugarte, Antonio Cabrera “Vera”.

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- 31 urteko arrasatear honek saskibaloian jardun zuen
- Espainiako gizonik ederrena izan ei zen sasoi baten
- Gaur egun, aurkezle lanak egiten ikus dezakegu telebistan

> Aurrekoaren erantzuna: Patricia Gaztañaga

> Irabazlea: ***Amaia Larrea Larrondo**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean Argia astekariaren opari sorta ederra zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48998 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru
hilabeteko harpidetza doan



Zumeta-Artzeren
lamina

www.argia.com

HASIER ETXEBERRIA > idazlea

“Ortodoxiak beldurtzen nau”



ARGAZKIPRESS

HASIER ETXEBERRIA— Elgoibar, 1947. Hendaiari bizi da. Idazterako orduan genero beltza, suspentsea du gustuko, eta berak esaten duen bezala “*idazle ona izateko mila nobela idatzi behar dira*”. Argitaratu duen azken nobela *Eulien Bazka* da, baina dagoeneko lanean dabil bere hurrengoan: *Mutuaren hitzak*. Bere azken liburuko protagonista hartu eta beste zenbait istoriorekin lotuko du.

Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Zazpikia naiz, guztiz zazpikia, nire gorputz handiaren irudiari ez badagokio ere.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Zazpiki izate horrek ematen didan ezinegona. Gauzak berehala egin nahi izaten ditut beti, eta hori beti ez da izaten ona.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Nire aitxita txatarreruari, amamak hanka azpitik txatarra zatiak nola kentzen zizkion etxeko sukaldean.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Hildakoetatik, Jorge Oteiza. Bizirik daudenetatik, Martin Ugalde.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Nire azken nobela irakurtzean, *Eulien bazka*, ez dela konturatu zein hizkuntzatan idatzita zegoen. Trabarik batere gabe irakurri duela. Eta gustatu, jakina.

Zein komentariok egiten dizu kalte gehien?

Orain dela gutxi, ETArek barne aldizkari batean hitz egin dute nitaz. Gaizki eta gezurra erabiliz. Ez zait sekula halako gauzarik gertatu gaur arte.

Gustoko duzun abesti bat...

Ziggy Stardust, David Bowie-rena.

Liburu bat...

Lur bat haratago, Juan Mari Irigoienena.

Eta film bat?

Orson Welles-en bat, faltsifikazio kontuez. Izena ez dut gogoan.

Zein leloekin egiten duzu bat?

“Leloric ez”.

Zertan edo norengan sinisten duzu?

Desioaren indarra benetan handia bada, zernahi lortu daitekeela iruditzen zait.

Zerbaitekin damutzen zara?

Mila gauza egin ditut oker. Behin literatura ikastaro bat eman nien nik baino askoz gehiago zekiten ikasleei. Hogeit urte baino gehiago dira, baina oraindik ez zait lotsa pasatu.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ortodoxiak eta nabardurarik ezak. Ilustratu gabeko gazteek ere bai.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Zoriontsu egin zaitzaketenak, beti izaten dira zorigaiztoko ere egin zaitzaketen berberak. Hala ere, zerbait esate aldera, esan dezagun, zerbait idazten asmatzeak egiten nauela zoriontsu. Eta artelan on batek ere bai, eta lagunarte bikain batek, eta... m